

**Txikonek bertan behera itxi dau Everestera igoteko saiakerea**

11. orrialdea

**Gorbeia Suzien Ternua Europako Txapelketea izango da 2017an**

Gorbeia Suzien Ternua mendi lasterketea, Europako Txapelketa izango da, Sky modalidadean. Urri bigarrenaren 7an jokatu da eta azken 5 urteetan legez, nazioarteko eta Euskal Herriko mendi lasterkari onenak biltzea espero dau antolakuntzak. 10. orrialdea



**Mendifilm Festivaleko film onenak Igorren zezeilaren 17 eta 24an**

10. orrialdea

TOKIKOM

# begitu

arratia ubide zeberio

# 268

2017ko zezeilaren 15a  
hamabostekaria  
www.begitu.org

## Aratusteak Arratian

Mozorro desfileak eta lehiaketak eta txitxi-burruntziak ermita inguruetan egiteko sasoia da; hau da, negu giroan be etxetik urten eta lagunakaz disfrutatuko sasoia.



**A**rratia eta Zeberioko Aratusteetan, umeak izaten dira batez be protagonista. Eskolak eta guraso alkarteak mozzorro desfile eta jaiak antolatuten ditue Inauterietako barikuan. Herri mailako mozzorro jaiak hurrengo egunean izango dira herri

gehienetan. Bedian, martitzen-kamabal egunean egiteko tradizioari eutsiko deusie.

Leku askotan ia galduta dagozan Kanporamartxo eta Etxeramartxo txitxi-burruntzia egiteko ohiturak, bizirik diraue gurean. 12. eta 13. orrialdeak

## Herri hizkera eta erregistro formala, biak beharrezkoak



**L**orea Bilbao Ibarra, Euskera eta Kultura Diputadua, euskereak aurre egiteko, euskaldunen hizkuntza hautua funtsezkotzat jotzen dau. "Dakigunok, ahal dogun guztietan egitea da klabea" dino. Eta egoera desbardinetan, euskerearen erregistro desbardinak erabili behar dira.

Kultura, mundua ulertzeko eta munduan kokatzeko herri baten identitate kolektiboa dala eta euskal kultura sendotuteko teknologia barriak aprobetxatu behar dirala uste dau. Arratian, herri kirolak bultzatzearen aldekoa agertu da Kultura Diputadua. "Horixe dogu eronketariko bat, ondo asmatu behar dogu behar daben babesa eta behar dabezan plazak eskeintzen", azaldu deutso BEGITU. 8. eta 9. orrialdeak

IGORRE

### Basogintza jardunaldiak martian

Martiaren 4 eta 5ean Igorreko III. Basogintza Jardunaldiak izango dira, "Basogintza eredu barriak, etorkizuneko politika publikoak eta jentarte ahalduntzea" lemapean. Baso Ahaztuak dokumentalak eta Igorre Bizirik-ek antolatu dabez jardunaldiok Igitie Arratiako Baserritar Agroekologikoen alkartearen eta Igorreko Udalaren laguntzeagaz.

Lehenengo egunean, beste gai batzuen artean, Txomin Diazek, Bizkaiko Foru Aldundiko Mendi ingeniariak, Dimako kasua azalduko dau. Eta sai zuriari omenalditxo bat egitea be aurreikusita dago.

Jardunaldi zabalak dira, interesa daukan edonorentzat. Izena emoteko epea zabalik dago. 7. orrialdea

IGORRE

### Goi Tensinoko linearen kontrako alegazioak aurkezteko epea zabalik

Zezeilaren 9an, Igorreko Udalak goi tensinoko linearen ejekuzino proiektua jaso eban eta alegazioak egiteko hilabeteko epea zabaldu da. 2011n, Igorreko Udalak Bizkaiko Gobernuaren ordezkariordetzan 382 herritar eta alkartek sinatutako goi tensinoko linearen kontrako alegazioak aurkeztu ebazan, baina Industria Ministerioak ez ditu kontuan hartu. Ezta 2015eko hegaztien babeserako Foru Dekretua be. 5. orrialdea

publizitatea  
94 631 73 14 eta 649 979 115



[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

Gugaz harremanetan ipinteko  
94 631 73 14 eta 649 979 112  
[begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

IGORRE

### Hilaren 20an hasiko da Bono-denda kanpaina AMEko saltokietan

Igorreko Udalak eta Arratiako Merkatarien Elkarteak (AME) Bono-denda kanpaina martian ipinteko sinatutako akordioaren arabera, Udalak sei mila euroko inbersioa egingo dau. Sei mila euro horreetatik, bost mila izango dira herritarren diru laguntzak ordaintzeko.

Bono-denda Igorreko Udalaren 5 euroko diru-laguntzea daukan bonoa da. Hogei euro pagauta, 25 euroko bonoa erosi daiteke La Caixan Igorreko dendetan gasetako. 7. orrialdea





**ARRATIA KOLOREETAN**

**MAZALA ANDRA TALDEA**

Hainbat urte pasau dira Zeanurin andrantsako ezer ez egoala ikusita, herriko andra batzuk batu eta Mazala andra taldea sortu genduanetik. Urte honeetan hainbat ikastaro, berbaldi zein ekintza desbardin antolatu doguz eta beste hainbatetan parte hartu dogu Arratiako andrakaz bat eginda.

Hasieran ikastaroak herrian antolatzeari ekin geuntsan; gure herrian era askotako berbaldi, jardunaldi zein ikastaro egin izan doguz. Urteakaz, Arratian beste talde batzuk martxan egozan eta barriak sortu diranez danon artean sarea sortzean joan gara eta horren ondoretako bat, igaz Arratiako Jabekuntza Eskolea sortzea izan da. Sare honetan murgilduta gagozanon artean, taldeak

zein instituzinoak; zemendiaren 25eko zein martiaren 8ko ekitaldi eta mobilizazioak koordinatu doguz gure erreibindikazioak azaleratuz, abortoaren legearen kontra zein biolentzia matxistearen kontra, ez ezetz dala argi itxita, beste aldarrikapen batzuen artean.

2015ean Arratiara be heldu jakun Emakumeen Mundu Martxea. Hor aukera ezin hobea izan genduan andra piloagaz gure kezka, gure itxaropenak, gure aldarrikapenak partekatze eta aspaldiko partez Arratiako ehundaka andrak parte hartu genduan martxa honetan. Batzuk Lisboara be heldu ziran Mundu Martxearen aldarrikapenakaz.

Baina, atzen urteotan beste

behar batzuetan murgildu gara, andren memoria berreskuratzeko gure herrian. Ez da eta bape be erreza andren memoria kolektiboa arakatzea eta aztertzea, normalean historia gizonen lorpenetan oinarritzen dalako. Zeanuriko andren historia berreskuratu guran eta herriko historia danon historia izateko, informazio biltze lanetan ibili gara. Atzenengo 100 urteotako argazki bilketea eginez auzoz-auzo eta hor lortutako hainbategaz, igaz *Gure andrak memorian* argazki erakusketea antolatu genduan martiaren 8aren ekitaldien barruan. Hori bera bakarrik nahikoa ez zala ikusita, gure andrak gerra garaian izan ebezan bizipenen grabazioak egiten ibili gara gure egungo proiektua aurrera eramateko, dokumental bat egitea lortutako informazio horrez.



Hau guztiau bertako andren jabekuntza sustatu eta proiektu luzeago baten pausu txiki bat besterik ez dalako, hemetik animau gura geunkeze gure herriko andrak, gazte zein heldu, batzera, parte hartzera, belaualdien

arteko loturak sortzera eta gure memoria berreskuratzeko hasita, ahazturik, neutralizaturik eta estalirik egon diran jakituria guzti honeek galdu ez daitezkan.

**Mazala Andra Taldea (Zeanuri)**

**TELEFONO INTERESGARRIAK**

**Larrialdiak**

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
SOS DEIAK 112

**Guardiako Farmaziak**

**09:00etatik 22:00etara**  
**Zezeilaren 13tik 19ra**

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15  
Tel.: 94 673 93 22

**22:00etatik 09:00etara**

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

**Zezeilaren 20tik 26ra**

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1  
Tel.: 94 631 30 18

**22:00etatik 09:00etara**

Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

**Zezeilaren 27tik martiaren 5era**

Rodriguez Martinez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27  
Tel.: 94 673 61 09

**22:00etatik 09:00etara**

Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.  
Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

**Urte osoan**

**22:00etatik 09:00etara**

Lucia Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

**Medikuak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 11

**Areatza:** 94 631 71 52

**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 631 56 30

**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16

**Ubide:** 945 45 03 61

**Zeanuri:** 94 673 91 49

**Zeberio:** 94 648 20 79

**Udaletxeak**

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 05

**Areatza:** 94 673 90 10

**Bedia:** 94 631 42 00

**Dima:** 94 631 57 25

**Igorre:** 94 631 53 84

**Lemoa:** 94 631 30 05

**Ubide:** 945 45 03 22

**Zeanuri:** 94 673 91 46

**Zeberio:** 94 648 10 79

**Udalen Mankomunitatea**

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

**Gorbeialde**

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

**Parketxea** 94 673 92 79

**Igorreko Kultur Etxea**

94 673 62 51

**Gorbeialde Irratia**

94 631 52 90

**Euskotren** 902 543 210

**Areatzako Notarioratza**

94 673 92 26

**Bizkaibus\* 902 222 265**

**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri**

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

**Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

**Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango**

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

**Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo**

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

**Otxandiotik urteerak:**

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

**Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide**

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

**Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)**

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Artea-Zeberio-Arriorriaga**

Arteatik urteerak lanegun eta zapatuetan

06:55ean eta 13:55ean.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik ez.

**Zeberio-Arriorriaga**

Lanegun eta zapatuetan 07:10, 08:10, 09:10, 11:10, 14:10, 15:10, 16:10, 18:10, 19:10, 20:10

Jai egunetan 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

**Arriorriaga-Zeberio-Artea**

Arriorriagatik 12:40ean urtetan dan zerbitzua Artearaino heltzean da lanegun eta zapatuetan.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

**Arriorriaga-Zeberio**

Lanegun eta zapatuetan, 07:40, 08:40, 10:40, 12:40, 14:40, 15:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40.

Jai egunetan, 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

**La Union\* 94 427 11 11**

**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandiokoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

**Gasteiz-Bilbo**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandiokoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.

**Babesleak:**



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.

**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

**Telefonoa:** 94 631 73 14.

**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

**Webgunea:** [www.begitu.org](http://www.begitu.org)

**Zuzendaria:** Iñigo Iruarrizaga.

**Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

**Erredakzino taldea:** Rakek Aldekoa Diez eta Ainhoa Duñabeitia.

**Maketazinoak:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.

**Publizidatea:** Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

**Banaketea:** Marta Rodriguez, Pablo Rodriguez eta Rut Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Ines Arenas, Iker Perez eta Ismael Martinez (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

**Tirada:** 7.000 ale.

**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.

## ZEURE BERBEA

### Zigor bikotxari ez, Iñaki Lemoara

Zoritxarrez Euskal Herriko baketze eta askatze bidean pausu asko daukaguz ondino egiteko, eta horren adibidetzat hartu daiteke euskal preso politikoi ezartzen jakiezan salbuespeneko neurri guztiak. Gure kasuan, Iñaki Bilbao lemoaztarrak eta beste hainbat presok jasaten daben zigor bikoxketen gaia hartu gura dogu berbagai.

Espainiar estatuak ez dau aplikau gura Europar Batasunean 2008. urtean onartutako ebazpena, eta beraz Frantziako kondena bete ostean, antzeko akusazioakaitik Espainian bete beharreko zigorra, 0-tik hasten da, Frantziar betetako espetxealdia kontuan hartu barik.

Legea beteko balitz Iñaki eta beste preso batzuk kalean egon beharko litzateke daborduko eta beste askoren kondenak murriztuko litzateke.

Giza eskubideen kontrako eraso larria izateaz aparte, euskal preso politikoi ezartzen jakiezan mende-ku politikearen erakusle be bada errealdade hau.

Gaia Europara heldu da, eta "Parot" doktrineagaz gertatu zan moduan, badirudi kasu honetan be europar justiziak ultimatum a emon arte Espainiak ez ditula Iñaki eta beste kideen eskubideak errespetauko.

Testuinguru honetan, Bagabiz Badatoz ekimenetik oso modu posi-

tiboan baloretan dogu Sarek egoera hau salatuteko abiatutako dinamikea, eta babes osoa adierazoten deusagu. Dinamika horren barruan, Sarek mozinoak aurkeztu ditu Arratiako udaletxeetan, eta harriduraz ikusi dogu EAJ-PNVk hartutako jarkerea. Arratiako udal guztietan lez, Lemoan be ezezkoa bozkatu eban "Udalak kasu horretan ezer ezin dauala egin eta ez dauala ezertarako balio" argudiatuz. Lemoaztar bateri eta bere lagun eta senideai zuzenean eragiten deusgen giza eskubideen urraketearen aurrean hori izan zan euren erantzuna.

Guk behintzat argi daukagu Udalak bere herritarren giza eskubideen alde jokatu behar dauala, eta Udalak modu ofizialean arazoaren arduradunak interpelatzea pausu txiki bat da agian, baina badakigu bide hau pausu txiki askogaz egin beharko dana.

Horregaitik Bagabiz Badatoz ekimenetik ezin ulertua eta haserrea adierazo gura doguz EAJ-PNV gure herriaren bake bidean oinarizkoa dan gai baten holango jarkerea eta argudioakaz ezezkoa justifiketan ikustean. Baina gure harridurea ez da hemen amaitzen, izan be Zornotzako Udalean aho-batez onartu zan Sarek aurkeztutako mozino bera.

Idatzi honen bidez, gaiaren inguruko bere jarkeraz hausnartzera konbidau gura dogu EAJ-PNV. Dannon artean arinago lortuko dogulako euskal preso, igeslari eta deportaduen eskubideak errespetau daitezala, bake bidean aurrera egin eta burujabetza lortzeako.

LEMOAKO BAGABIZ BADATOZ EKIMENA

## ERETXIA

### Eskola laikoaren alde

**Z**er da laizismoa? "Personearen formazino osoa, ikaskuntza, sozializazino, proselitismo eta doktrinatzeko bako kultura jaso eta bardintasun, askatasun eta persona guztientzako formazino kritikoa ahalbidetzen dauan eskolako laikotasuna defendiduten dogu. Erlijino eta kultura ugaritasuna onartzen dogu eta, beraz, erlijino katoliko konfesionalak Hezkuntza Sistemari eta eskola publiko eta konzertaduan daukan presentzia salatuten dogu". Artikulu honen hasikerarako ekarri doguzan berbak ez doguz geuk idatzi; Redes Cristianas plataformeak 2008ko urri lehenengoan ateratako *Manifiesto por la laicidad* dokumentutik hartu doguz (5. puntua).

Testu honeguz hasi gara laizismoa ez dalako erlijinoaren kontrakoaren edo antiklerikalismoaren sinonimoa, ezta ateismoarena be. Laizismoa estaduaren eta erlijinoaren arteko hartu-emon eredu da. Laizismoa estaduaren neutraltasuna bermatzen dan edozein erlijino-sinesmen edo kontzientzia aukerea da. Beraz, estadu laikoan erlijino sinesmen baten irakaskuntza, zabalkuntza eta finantzazino a eleiza edo erlijino-alkarte bakotxari jagoko.

Zein da erlijinoaren egoerea eskoletan? 1979tik Espainiako estaduak Vaticanoagaz sinatu ebazan akordioen ondorioz, eskoletan erlijino katolikoa derrigor eskeini behar da, eta gurasoak aukeran daukie hartzea ala ez. 1992an beste hiru erlijinoetako agintaritzakaz sinatu ebezan akordioak: erlijino islamikoa, erlijino judua eta erlijino ebangelikoko agintaritzakaz, hain zuzen.

LOMCE eta HEZIBERRIgaz ikasleak hurrengo aukerea egin behar dabe: DBHn "Balio etikoak" edo "Erlijino katolikoa", islamikoa... eta LHn "Balio sozial eta zibikoak" edo lau erlijino horreetako bat. Batxilergoan Erlijino hautazko ikasgaia da, eta Psikologia, Filo-

### HEZKUNTZA LAIKOA TALDEA

sofia, Industria Teknologia edo Lur eta Ingurumen Zientziak lan-go ikasgaien kategoria berbera dauka, astean lau eskola-ordu. Gainera, LOE aurreko legeagaz ez bezala, erlijinoko notea espediente akademikoan kontuan hartuko da batz bestekoak egiteko.

Zein da egoera honen ondorioa? DBHn eta LHn ikasle batzuk balio etikoak eta zibikoak landuten dabizen bitartean, erlijino aukeratu dabenak edo doktrina jasoten dabe, edo besteak lez, balioak landuten dabilz: giza eskubideak, alkartasuna, alkarbizitza, errespetua, eta abar. Eskoleak doktrina ala hezi egin behar dau? Ikasleak erlijino sinesmenaren arabera bereizi behar doguz balioak landuteko? Balio batzuk erlijino zehatz baten ondarea dira? Eskola publikoan zilegi da irakasle gisa lan egiteko fededuna izatea eskatzea?

Eskola publikoaren helburuetako bat herritar kritikoak eta erantzuleak hezte da, doktrinamentuak alboratuz eta ezagutzak landuz, eta fedea eta jakintza bereiziz. Gizartea plurala da, eta eskolea be bai, eta pluraltasunetik abiatuta guztiok adostu eta konpartidu behar dogu hezkuntza etiko komuna balio komun eta unibersalen inguruan.

Zein da gure proposamena? Erlijino-sinesmen bakotxak badauka eskubidea eskolaz kanpo bere doktrina praktikau eta landuteko. Eskolan erlijinoaren gaia ingurune, gizarte, etika eta filosofia ikasgaietan aztertu behar da. Beraz, erlijino agintaritzakaz indarrean dagozan akordioak bertan behera geratu arte, familien esku dago ikasleak ez bereiztea erlijino sinismenaren arabera eta aniztasunean hezte.

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, begituk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Gura ez dala



Zeizer asmo txar barik egin ostean ondorio eskasak ikusten diranean gura ez dala egin dogula esaten dogu (gurestala, agoskatuta). Batuaz, nahi gabe da. Esate baterako: kalean joan, konturatu barik estropezau, eta albotik pasetan danari jotean, "Gura ez dala izan da. Parkatu!" esaten da. Jateko orduan be erabilten da: Gustukoa ez dana edo gogo txarrez, kalte egiteko edo, jaten danean: "Gura ez dala ez jan, e!".

**BATZ** 50 urte

BATZ, S. KOOP.  
Torrea auzoa, 32  
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

**IZAN GINAN...**

**...BAGARA ETA IZANGO GARA**

Endakab  
Batzen gure

MONDRAGON



## LUMATUTEN



## SORAYA LIZUNDIA

## Konfiantzea

**L**angile giroan jaio eta hasi garanok, langileriaren eskubideen alde hainbeste burruka eta greba hurretik ikusi eta bizi izan dogunok, ondo dakigu zenbat kostetan dan helburuak lortzea. Behin lortuta betirako diralakoan errelajau ginan, konfiantzea ipini genduan gure politikoengan eta hareek, urteetan egindako burrukai esker lortutako lan baldintzak galtzea errezten daben legeak onartu ebezan.

Inguruneari jagokonez be konfiau egin dogu. AHT beharrezkoa dala sinistu dogu gure politikoak holan esan deuskuelako eta gure lur maitea zauritzen eta ormigonatzen ikusten dogu lasai asko. Izugarriko triskantzea. Euskadi Irratiako Ekosfera programan be aditu bateri entzun neutsan AHT proiektuak ez deustala herriaren beharri erantzuten, eraikuntzaren lobbyen nahari baino; lanera joateko trena erabilten dabenak zerbitzu eskasa jasaten jarrai-

tzen daben bitartean, maila ekonomiko altuko personak bakarrik erabili ahal izango dabe, desbardintasun soziala handituz.

2007an Txingudi badian errauste planta bat eregiteko proiektuaren kontra hainbat kolektibo alkartu ziran, mediku, ekologista eta 39 herrialdetako gobernu kanpoko 130 erakundetako ordezkari, ikerlari eta uri hondakinen kudeaketan adituak. 2011-2015 legegintzaldian zarama gitxitzeko eta Zubietako errauste planta saihesteko herriaren inplikazioagaz egindako proiektua egin eta ipini zan hainbat herritan. Berrerabili eta birzikletako emoitzarik onenak emon dituan bilketa sistema atez atekoa izan da, baina herritarren ardura eskatzen dau bilketa sistema honek eta oraindik orain badago nork, zarama sortzeako eskubide guztiak daukazala baina zer gertatzen dan sortutakoagaz bere arazoa ez dana pentsetan dauanik. Konfiau egin dogu Europako normatibaz, sistemearen onuraz, personen arduraz eta garai haretako politikoez, baina politiko horreek aldatu egin ziran eta barriro errauste plantearen mehatxua ekarri deuskue.

Konfiantzeak azkenean akabatzen gaitu; beraz herriaren txandea da.

## ZERTZEAN



## ARITZ ARRIZABALAGA

## Iluntzea

**E**guzkia ostenduteko intentzinoagaz egon arren, oraindino argitasuna da nagusi. Udabarria aurerrantza doa eta, argitasunak legez, beroak be gero eta indar handiagoa dauka. Parkea josita dau. Umez. Oihuz, barrez, negarren bat edo bestez.

Heldu nekatuz.

Parke inguruan dagozan aukietan, binaka edo taldean, guraso eta aitita-amamak alkarrizketa arinak daukiez. Esan lei denporeak kutsatuta dagozala danak.

Persona bakarra dago bikote eta taldeetatik urrunduta.

Agertu barri dan gizonzkoa bakarrik esarrita dagoan horregana hurreratu da. Mosu bana emon deustie alkarrerri, baina bien arteko isiltasuna apurtutea kostau egin jakie. Andrazkoak apurtu dau.

- ¡Qué tal?

- ¡Hasta los huevos con el puto jefe!

Bera be nekatuta dagoala esatekotan egon da, "hasta los huevos" edo "hasta las tetas". Oso nekatuta. Baina ez deustoz ezer erantzun: olgetan dabizan

umeen artetik saltoka datorren neskatoangan erreparau dau.

- Aita, aita!- oihu egin deustoz gizonzkoari- Bitu zelangoz kamisetara erosi deustan amatok.

- Sano polita- erantzun dau gizonzkoak andrazkoari begi keinu bat eginez. Keinua ez dau erantzunik izan bueltan-. Eta, eskegita daroazuna, nondik atera dozu?

- Hau? Ludotekan egin dogu. Politza da, baietz?- galdetu deustoz lagunen artera saltoak emoten hasita.

- Bai, itzelean. Gero erakutsi beharko deustazu etxean zelan egiten dan!- erantzun dau ahotsa goratuz.

Eguzkiak badauka halango magia berezi bat, momentu labur baten erakusten dauana. Neurtuteko gaitza da instante hori (segundotan esan gura da), baina bero eta argi egotetik, etxera joateko ordua dala sentidu arazoteko gai da.

Momentu horretan egin deustoz galdera gizonak andrazkoari.

- ¡Bueno, y, tú, qué tal?

\* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidean.

## BEGI TXINDORRA

**A**ske dira Santa Ageda bezperan entzun genduzan koplak. Baina Maialen Lujanbioren "Beti bezperako koplak" dira gogorrenak, gordinenak eta egiazkoenak. Lujanbiok, K.o. I. mendeko Agate Deunaren hilketa sexistea gogoratzen daben koplak soinuagaz, gaur egungo hilketa matxistak jasoten dauz beti bezperako koplak. Hemen zatitxo bat.

Santa Ageda eguna beti bezpera deguna ohitura batzuei ez zaie inoiz iristen biharamuna.

Ezeta jaso zun arrak gizonak, Jainko lurtarrak ta Ageda gure martiriari moztu zizkion bularrak.

Aterik ate kantari gatoz makil ta ahots ozen gu etxe hontako nagusi jaunak etxeoandrea jotzen du.

Leihotik bota du haurra kolpez hausten da intxaurra boterea ez da hainbeste aldatu hogei mendetatik gaurra.

Aurrera goaz dena aldatzen da denbora pasa heinean dena aldatzen da aldatzen ez den oinarri baten gainean.

...



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
[gorosti@gorostisci.com](mailto:gorosti@gorostisci.com)

**agoa** Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika  
hagin klinika  
Marina Urigoitia Aldekoa  
Ondarroa  
Bidebarri 1, behea  
48140 Igome-Bikala  
T. 94 631 50 39  
Kalegatu Zerbait 100  
R.P.S. 21/06

**Beer & Edariak s.l.**  
HEINEKEN SOLARES  
Polig. Mendaketa, n.º 3. 48550 LEZMOA, Bizkaia  
Tel: 000-480-839-000-000-717

**FISIK**  
FISIOTERAPIA ETA  
ERREHABILITAZIO ZENTROA  
Tel. 94 685 11 16  
LEHENAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE



## ARRATIA

# Abiatu da Korrika kulturala

Zezeilaren 10ean, Igorren hilero egiten dan kantupoteoagaz abiatu zan Korrika kulturala.

### Erredakzioa

Antzerkia, musikea eta zirkua ez dira faltauko Arratiako euskerazko eskeintza kulturalan. Kilometro salmentea be martxan dago eta AEK-ko Igorreko Euskaltegian erosi daitezke.

Ondino ekintza guztiak lotuta ez badagoz be, egongo diran batzuk aurreratu deusaz BEGITURI Lurdes Ortega Arratiako Korrika arduradunak. Martiaren 18an Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako mendi martxea egongo da Arratian bertan; baita sanjosetako bertso-saioa be. "Korrika urteetan beti sartzean da bertso-saio hau Korrika kulturalan. Gaien artean Korrikaren inguruko zeozer egongo da" dino Ortegak.

Igorreko Kultur Etxean *Ez dok hiru* antzezlanana egongo da martiaren 31n. Patxo Telleriak, Mikel Martinezek eta hiru musikariek Euskal Herriko imajinario musikalarri errepaso dibertigarria egiten deusie ikuskizun honetan. Apirilaren 6an, 17:00etatik 19:00etara, zirkua jaia egongo da Lemoan.

Arratiako eskolaz be hasi dira hartu-emonetan AEK-koak umeen Korrika Txikia prestatzeko.

### Kilometroak salgai

Arratian 50 km. ditu saltzeako AEK-k eta kilometroa erosi gura dauanak Euskaltegiagaz kontaktuan ipini behar da. Prezioa 420 euro alkarte eta herritarrentzat, eta 600koa da erakundeentzat.



## IGORRE

# Bilbaoren aldeko epaia emon dau Administrazioagazko Auzitegiak

### Erredakzioa

Jon Bilbao igorretarrari 3.001 euroko isuna eta sei hilabetez kirolguneetara sartzeko debekua ipini eutsien 2012ko Athletice finlean, Madrilgo Vicente Calderon futbol zelaian, arrano baltza agertzen dan bufanda bat eroateagaitik. 2017ko urtailaren 25eko sententzian, epaileak arrano baltza daukan bufanda eroatea ez dala delitua ebatzi dau.


Antzeko sententzia bat be egon zan Iruñean hilabete pare bat lehenago. Epaileak errazoa emon deusanez, Jon Bilbaori isuna itzuli

beharko deusie. Sei hilabetez kirolguneetara sartzeko galarazpena beteta dauka eta hori gatxogoa izango da konpentsetan.

Arrano baltza ezin dala tipifikatu sinbolo ilegal moduan dino sententziak. Izan be, 800 urte baino gehiago daukazan Nafarroako sinboloa be bada, eta "ez dauka bakarrik erabilten erakunde terrorista batek". Hori dala eta, ezin dala bere patrimoniotzat hartu, Nafarroako erakundeak be erabilten dabelako dino sententziak.

### Arranoa Libre plataformea

Bide administratiboa amaitutakoan Jon Bilbao epaitegira jotea ebatzi eban, babesa emoteko Igorren sortutako Arranoa Libre adierazpen askatasunaren aldeko plataformearen laguntzeagaz. Horren laguntzea barik ezin izango zala hau aurrera atera eta sortu zan alkarteari eta "mobimentu guztiari" esker ona adierazo gura deutso Bilbaok.



## IGORRE

# Goi tensinoko lineako ejekuzino proiektua jaso dau Igorreko Udalak

Zezeilaren 9an, Igorreko Udalak, goi tensinoko linearen ejekuzino proiektua jaso eban. Goi tensinoko linea honek 400 kV eroango dauz Gueñes (Bizkaia) eta Itsaso (Gipuzkoa) artean. Bizkaiko 17 herritatik pasauko da; tartean, Zeberio, Bedia, Lemoa eta Igorretik.

### Erredakzioa

Ingurumenean zein personen osasunean kalte handiak sortzean dituala eretxita, alegazioak ipini ditue udalak, herritarrak eta Bizkaiko Foru Aldundiak. Alegazioen bidez, proiektua baztertea bilatzen da, batez be ingurumenari eta osasunari egingo deutsezan kalteakaitik, baina baita, proiektuaren legitimazino falteagaitik, garapen aurreikuspenakaz bateraezintasunagaitik edo justifikazino falteagaitik be.

2011ko martiaren 25ean, Igorreko Udalak Bizkaiko Gobernuaren ordezkariordetzan, 382 herritar eta alkartek sinatutako goi tensinoko linearen kontrako alegazioak aurkeztu ebazan. 2012ko ingurumen-eragin txostenean ez ziran alegazio horreek jaso, eta 2016an, Espainiako Industria Ministerioak proiektua aurrera joiala jakinarazo eutsan Udalari eta alegazioari erantzuna emon.

Hori dala eta, 2017ko urtailan, barriro be alegazioak aurkeztu ebazan Igorreko Udalak. Oraingo honetan 3 ardatz nagusitan oinarritzen ziran alegazioak: Red Electrica Española (REE) eta Ingurumen Ministerioak aukeratutako 3. pasabide horrek ingurumen arloko legedia barria errespetetan ez dauka da bat. Izan be, 2015ean Foru Aldundiak hegaztien babes bereziko arau barriak atera ebazan eta gainera, Igorren goi tensinoko linea hori doan lekuan bisoi europarraren gune babestu bat dago kontuan izan ez dabena.

Alegazioen beste ardatz bat da, legez, ingurumeneko deklarazinoak, 2012an onartu zana, berrikusi beharko litzatekela. Izan be, 21/2013



Urkuzun egin zan batzarra.

legearen arabera, ingurumen-eragin txostenak bi urterako balioa daukielako eta lege horrek dinoan moduan behin onartu egon ostean "aldaketa sustantzialak" bada goz berregiteko eskaerea justifiketan da. Udalaren ustetan, 2015ean plazaratutako Foru Dekretua "aldaketa nabarmen" horreetako bat litzateke.

Eta hirugarrena, herritarren bizilekueetatik gordetako distantziak kasu batzuetan, REE berak ezartzen dauzan minimoetatik behera dagozala. Esate baterako, proiektu horren arabera, baserri batek, torre bat eukiko dau 80 m.tara eta Garakoi eta Urkuzuko biziguneetatik be, 400 m.ko distantzia gorde barrik pasetan da

### Alkarlana

Zezeilaren 8an, herritarrak egoeraren barri emoteko, batzar bat egon zan Urkuzuko txokoan. Bertan, nondik nora joango dan goi tensinoko linea eta osasunean euki leikien eragina azaldu eben udal ordezkariak. Hurrengo egunean heldu zan ejekuzino proiektua eta beste alegazio epe bat zabaldu

da. Zezeilaren 10ean, Igorreko Udaleko ordezkariak, Elena Unzueta Iraunkortasun eta Ingurune Naturala Zaintzeko Foru Diputadua eta Unai Gangoiti Ingurumen arloko Foru Zuzendariagaz batu zan, alegazioak "danok zentzu bardinean egiteko" Itsaso Bengoetxea zinegotziak azaldutakoaren arabera. Alegazio horreetan, beste gauza batzuen artean, ingurumen-eragin txostenean 2015eko dekretua kontuan hartu beharra jasoten da.

Igorreko Udalak Lemoa eta Bedia Udalak hartu-emonetan ipinteko asmoa adierazo dau. "Eta ez bakarrik Arratiakoakaz, Gueñes eta Itsaso arteko beste hainbat herrigaz be bai" dino Bengoetxeak. Arratiako alkarte ekologista eta estatu mailakoakaz be ipini dira kontaktuan, hurrengo pausak zeintzuk izan leitekezan jakiteko. Izan be, herri mailan proiektua gelditzea gatx ikusten dabe udalletekoak, "herritik gaintik dagozan interesak dira eta herri mailan konplikaua ikusten da hori gelditzea" dino Jon Bilbao zinegotziak.

## ARRATIA

# Ume txikerren gurasoentzako tailerra

### Erredakzioa

Arratiako Udalen Mankomunitateko (AUM) antolatutako gurasoen-

tzako bigarren tailerra martiaren 2an abiatuko da. Nerabeen gurasoentzakoaren ostean, 2 eta 5 urte bitarteko umeen gurasoentzako izango da hau. Lemoako Kultur Guneko gela lilan izango da 17:00etatik 19:00etara.

Ikastaroak bost saio izango ditu, martiako bost egunen artean. "Non dago argibide liburu?" eta "familia taldea" lango gaiak landuko di-

tue bertan, baita hiru hazte etapa: oinarritzko segurtasuna eta askatzea, ikasi ikasten, eta nerabeazko txikia izenekoak.

Izena emoteko prebentzioa. arratia@bizkaia.org helbidera idatzi daitezke edo 94 631 17 17 telefonora deitu.

Hirugarren ikastaroa, 6 eta 12 urte bitarteko gurasoentzako, Areatzan izango da apirilean hasita.



## ARRATIA

**Igaz 12.000 euro banandu ebazan Caritasek premia eukienen artean****Erredakzioa**

Caritas Arratiak jakitera emondako datuen arabera, 2016an 12.000 euro banandu ebazan premia eukienen artean. Diruaz gainera, Eleizako erakundeak balioetsi gura dau hainbat boluntariok doban egindako beharra.

Caritaseko boluntarioak bost arlotan jarduten dabe: harreran, sensibilizazioan, formazioan, bidezko merkataritzan eta osasun pastozaltzan, hain zuzen be.

2016an, 34 familiari emon eutsien Harrera zerbitzua. Kide bakarrak zein familiak atendidu ebazan Caritasek, batez be Maroko eta Senegaleko jatorrizkoak, eta egoera administratibo ez normalizuan egozan gehienak. Izan be, egoera administratiboa erre-

gulartuta %17k baino ez eukien. Oinarrizko preminetarako laguntza ekonomikoak emon eutseen, garraiorako diru laguntzea eta erropea erosteko. Guztira 12.000 euro baino gehiago.

**Diru sarrerak**

Caritasen diru iturri nagusia, Arratiako parroikiko eleiztarrak emondakoa da. Igaz holan 15.000 euro inguru batu ebezala dinoe Caritasetik. "Horretaz aparte errefujiaduen aldeko diru batzea egin zan 2016ko zezeilean, 1.900 euro baino gehiago batuz".

Bidezko merkataritzeari jagokonean, nekazal azoketan eta eleiz atarrietan saltzean dabez produktak. Igazko salmentak "2.000 euro baino gehiagokoak" izan ziran.

## ZEBERIO

**Gaztelekua barriro zabalik****Erredakzioa**

Igazko bagiletik abendura arte zarratuta egon ostean, 2016ko Gabonetan eta egun batzuetan probak egin ondoren, barriro zabaldu ebazan atea Zeberioko Gaztelekua. Barikuetan 18:00etatik 21:00etara eta zapatuetan 17:00etatik 21:00ak arteko ordutegia dauka.

Gaztelekuan gazteak adostutako programazioa eroango dabe aurrera. Han, 11 eta 16 urte bitarteko neska-mutilak, beste gauza batzuen artean, eskulanak, sukaldaritzako tailerrak, bideo jokoak, kirol jokoak edo talde dinamikak egin lekiez, Keima enpresako hezitzaile baten zaintzapean. Martian, berbarako, kandelak egiteko tailerra, jolas kooperatiboak, genero bardintasuna sustatzeko dinamikak, zirku eguna, zientzia eguna, Kola Kao tertulia eta film labur bat gabetea dagoz aurreikusita.

**Garapen personalerako espazioa**

Gaztelekua garapen personal eta soziala bultzatzeko espazioa izatea gura dabe Udalak eta hezitzaileak. Gaztetxoen autonomia personala eta identitatea eregiteko prozesuan "alkarren arteko hartu-emon osasuntsuak" sustatzeko gunea, hain zuzen be. Horretarako ekintza erakargarriak eskeintzen saiatzen dira baloreetan oinarritutako metodologia erabiliz.



## AREATZA/ARTEA

**Berbalagun proiektua martxan**

**Areatza eta Arteako Udalak, AEK-gaz batera, Berbalagun proiektua ipini gura dabe martxan herri bi horreetan.**

**Berbalagun taldeak, partaideak eurak ebazten dabenean batzean dira aisialdian euskeraz egiteko. Izena AEKn edo Areatza zein Arteako Udaletan emon daiteke.**

**Erredakzioa**

Berbalagun ez dira euskerazko klaseak, aisialdia euskeraz biziteko aukera baino; hau da, lagunakaz batera zer egin ebatzi eta eguneroko bizitzan euskera txertatzeko. Euskeraz berba egiteko errezasuna lortzea da helburua. Lemoan 5 urteko ibilbidea egin dau proiektuak eta sano ondo funtzionetan dau; izan be, 26 personak erabilten dabe dobaneko aukera hau euren euskera hobetuteko. "Ez da bakarrik ordubete berba egitea lagunakaz. Parkean edo pasean egin daiteke... runner-ak daukaguz, poteozaleak... edozein ekintza egin daiteke, ez dago zertan egon tabernan eserita ordu bat" dino Aitor Barrenetxea Zuluaga Arratiako AEK-ko irakasleak. Gainera, berbalagunak batzeako AEK-k urtekerak, tailerrak eta beste ekintza asko antolatuten dauz.

Taldeak partaideen euskera maila eta taldekideak gura daben ordutegiaren arabera antolatuten dira.

**Areatza eta Arteako Berbalagun** Udalaren partetik jentea apuntau

daitela espero dabela dino Yazmina Beobide Areatzako euskera zinegotziak. Euskera ikasleak errezasuna hartzeako eta euskeraz ondo dakienak be egunerokotasunean erabili dagien. "Euskeraz dakienak be askotan ez dabe erabilten eta euskeraz egiteko ohitua berreskuratzeko

ondo jatorkie" dino Barrenetxeak. Euskeraz ondo dakienak Berbalagunen sartzea beharrezkoa da, eta euren ekarpena ezinbestekoa ikasten dabizantzat.

Areatzako zinegotziak azpimarratu gura dau Arteako Udalgaz batera egiteak taldea sortzeako aukerak biderkatu egiten dituala, "inor geratu ez daiten talde barik". Izan be, herri baten zein bestean talde bat sortzeako beste jente apunetan ez bada, biak batu ezkeru sortu leiteke.

AEK-koak, "jente heldua, edadekoa, gazteak, neskak, mutilak, ideologia guztietakoak, xakezaleak, mendizaleak, AKKBko kirolariak, futbolzaleak" eta abar animau gura ditue Artea eta Areatzako Berbalagunen parte hartzean.



## ARRATIA

**Umoreagaz guzur kulturalak desaktibetako ikastaroa****Erredakzioa**

Arratiako andren jabekuntza eskolearen barruan, Virginia Imaz pailazoaren ikastaroa ekarriko dau Igorrek zezeilaren 24 eta 25ean. Igorreko Kultur Etxean izango da gazteleraz eta saio bi izango ditu. Bata barikuan, 17:00etatik 20:00etara, eta bestea zapatuan 10:00etatik 13:00etara.

Espazio horretan, partaideak emozino biologiko eta kulturalai buruz hausnartuko dabe umorea erabiliz. Alkarreri entzun eta behin eta barriro esaten diran guzur kulturalak desaktibetako gunea izango da tailerra.

**Virginia Imaz**

Virginia Imaz Oihulari Klown taldeko partaidea da. Taldeak 25 urteko

ibilbidea dauka. Virginia Imaz pailazo feministea ezaguna da bere taula gaineko lanakaitik, bapateko ikuskizunakaitik zein emoten dituan tailer eta ikastaroakaitik.

Holan deskribiduten dau Imazek bere burua bere webgunean: "Ederra eta desirazko objektu hauskorra izatera (pre)destinatu banangoan be, emakume estetikoki dibergentea nintzan (eta naz) ni, neure desio propioak (desegokiak sarri) zituana. Etxeko betebeharrak amaiezinen ondorioz haurtzarotik goizegi erbesteratua, jolasa lanbide bihurtu dot eta plazera eta barrea nire kredo".




**Virginia Imaz.**



IGORRE

# Sei mila euroko inbersinoa egingo dau Udalak Udabarriko Bono-denda kanpainan



Beinat Anzola alkatea eta Gorka Jauregi AMEko presidentea.

Igorreko Udalak eta Arratiako Merkatarien Elkarteak (AME) Bono-denda kanpaina martxan ipinteko sinatutako akordioaren arabera, Udalak sei mila euroko inbersinoa egingo dau.

Erredakzioa

Sei mila euro horreetatik, bost mila zuzenean herritarrak jasoko daben diru laguntzak ordaintzeko izango dira eta beste mila sustapenaren gastuak ordaintzeko. Bonoak eta kartelak diseinatu eta inprimiduteko gastuak be Udalaren kontura izango dira.

Bono-denda Igorreko Udalaren 5 euroko diru-laguntzea daukan bonoa da. Hogei euro pagauta, 25 euroko bonoa erosi daiteke La Caixan Igorreko hainbat dendatan gastetako. Udalaren arabera, herriari bizia emoteko ezinbestekoak dira saltoki txierrak eta horreek bultzatzeko eta

igorretzarri beharrezko dituen produktuak eskuratzen lagunduteko ipini dabe martxan kanpaina hau. Txartelen salmenta hilaren 20an hasiko da Igorren erroldatutako bizilagunentzat eta 27an gainerako interesdunentzat. NAN bakotzeko hiru txartel eskuratu daitezke gehienez.

AME Igorreko merkataria alkate bakarra da eta herriko merkataritza eta zerbitzuak bultzatzea dauka helburu. Berrogeta hamaika saltoki dira bertako bazkide.

Bono-denda kanpaina parte hartzean daben saltokietan hori adierazoten dauan bereizgarri bat egongo da errez ikusteko moduko lekuren baten.

ARRATIA

# Aitor Esteban izango da arratiarrakaz berbetan zezeilaren 17an



Erredakzioa

Aitor Esteban EAJ-PNVko Kongresuko bozeroalea Zeanuriko kultur etxean izango da zezeilaren 17an, bertaraturatutakoak Madrildo agendeak marketan dituan eta euskal gizartearengan kezka eragiten daben gaien gainean berba egiteko. Arratiarrakaz berbetan zikloko bigarren berbaldia izango da.

Aitor Estebanek, azalduko dau besteak beste, Euskal Agenda zer dan, zein gaitz osotuten daben eta zelan defendiduten dan; abertzaletasunak Behoko Ganberan daukan egitekoa; Estaduagazko aldebotasunak daukan garrantzia; beste aldeakazko hartu-emonak; EAJ-PNVk Estaduko Aurrekontu Orokorren aurrean daukan jarkerea... eta, egiten deusien galdera guztiak erantzungo ditu. Izan be, *Arratiarrakaz berbetan* ekimenaren helburu nagusia topagunea sortzea dala dinoo jeltzaleak; "galderak egiteko, zalantzak, ideak edo kezak planteetako, eretxiak adierazoteko eta, egoki jotzen bada, proposamen aberasgarriak egiteko".

Jonan Fernandez martian

Martirako antolatutako berbaldia Eusko Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetzako Zuzendari Jonan Fernandezek gidatuko dau. Fernandezek hainbat gai jorratuko ditu, besteak beste, Euskadiko bake eta bizikidetzaren planak, errefujiaduen egoera edo espetze politikea.

IGORRE

# Basogintza eredu barriak landuko dabez III. Basogintza Jardunaldietan

Martiaren 4 eta 5ean Igorreko III. Basogintza Jardunaldiak izango dira, "Basogintza eredu barriak, etorkizuneko politika publikoak eta jentartea ahalduntzea" lemapean.

Erredakzioa

Baso Ahaztuak dokumentalak eta Igorre Bizirik-ek antolatu dabez jardunaldiok Igitie Arratiako Base-ritar Agroekologikoen alkarte eta Igorreko Udalaren laguntzeagaz.

Martiaren 4an, Igorreko Kultur Etxean, lau hizlarik egingo dabe berba basoen kudeaketa eredu aldatzeko behar diran politika publikoen gainean. David Gutierrez arkitekto aholkulariak paisajea errekuperetako politika publikoen gainean jardungo dau; Iñaki Antiguedadek Hidrodologian katedradunak, ibai-arroen kudeaketaz egingo dau berba, ibaien dinamikan basoak daukien eragina azalduz. David Cobos Atxondoko alkateak Atxondoko kasua azalduko dau, egin daben herri lurren berreskurapen eta kudeaketa, hain zuzen be, eta Txomin Diaz-ek, Bizkaiko Foru Aldundiko Mendi ingeniariak, Dimako kasua azalduko dau; hau da, basogintza eredu jasangarrigo baterantz egingo deusie eta *Gutik zura*

dokumentala ikusteko aukerea izango da. Dokumentalean azaltzen dan proiektuaren zuzendaria dan Mari Jose Barriolak egingo dau aurkezpena.

Muruako basoak

Domekan Muruako herri basoak bisitauko dabez partaideak. Bertako Abadelaueta alkarteak inguruko paisajearen kontestualizazioa egingo dau. Valentin Mugarza Gipuzkoako Foru Aldundiko baso ingeniari teknikoa, Samuel Alvarez zugatz teknikaria, eta Geert Roels bertoko zugatzen landare-hezitegiko arduradunagaz, baso lepatuen kultura, zugatz zaharren babesa eta berreskurapen eta gaitzaindoen hazkuntzaren inguruan berba egiteko aukerea izango dabe partaideak.

Izen emotea

Jardunaldiak, gai honetan interesa daukien guztiarentzat dira. Izena emoteko basogintzajardunaldia-igorre@gmail.com helbide elektronikora idatzi daiteke, edo 695 788 740 telefonora deitu, edo Whatsapp edo mezu bat bialdu.

arratiako instalazioak s.l. Berokuntza - Iturgintza - Gasa Aireztatzeko sistemak Aire zurgatze zentralizatua Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak Igorreko Industrialdea Pab. D7 Tel. Fax. 94 673 62 76 Tel. 619 736 516 48140 Igorre Bizkaia

RUGBY TABERNA Egin zaitez bazkide! 09:30etik zabalik Asteburretan pintxo bereziak arratiko.zekorak@gmail.com http://santxisme.blogspot.com/

NAUTERIAK 17 DIMA KONZERTU BALTZOLA JATETEAN OTSAILAK 25, 22:00 TAN LION HEART Classic Rock & Metal



## LOREA BILBAO IBARRA

# "Nik Oban lehen beste euskera egiten dot, etorritakoak be euskeraz egiten dabelako"

Erredakzioa

**Ondino normalizazioa lortu ez bada be, euskerea osasun onean dagoala esan daiteke. Euskaldunen kopuru eta portzentajea astiro baina eten barik gorantza doa. Oker ez banago herena baino gehiago da euskalduna egun %33,9, Arratiako herri askotan %70 baino gehiago; erabilereak be gora egin dau inguru erdaldunetan eta euskaldunetan beherantza egin arren (Igorren salbu) hasi dira horri buelta emoteko beharrean. Ze balorazino egiten dozu? Eboluzio honek euskerearen politiken aldaketarik ekarriko dau?**

Ezagutza ezinbestekoa da gero erabili ahal izateko, zenbat eta jente gehiagok jakin euskerea, orduan eta aukera gehiago erabilteko. Normala da erabilera ezagutzaren azpitik geratzea beti euskerearen kasuan zein beste edozein hizkuntzaren kasuan. Normala be bada, populazioaren mobimentuak dirala eta, oso gune euskaldunak izan diranetan erabileran behera egitea, edota oso gune erdaldunak izan diranak erabileran gora egitea. Kontua da, lehen euskeraz jarduten izan dogunok gaur egun ze hizkuntza hautu egiten dogun, egoera bardintsuetan gagozanean. Hau da, nik Oban lehen beste euskera egiten dot bertara etorritakoak be euskeraz egiten dabelako. Faktore erabakigarriak bi dira: bat, gero eta jente gehiago egotea euskeraz egiteko gai dana, eta bigarrena, euskeraz egiteko gai garanok euskeraz egiteko hautua egitea. Dakigunok ahal dogun guztietan euskeraz egitea da klabea. Eta Arratia moduko ingurune berezko euskaldunetan erabilera manteniduteko edota erabilereak gora egin daian merkatariaz, tabernariakaz eta gainontzeko zerbitzu emoileakaz euskeraz egin dagien jarreretan eragin eta ekintzak bideratu.

Euskerearen politikak egunean eguneko egoerara egokitu behar dira baina argi dagoana da martxan dagozanak frutu onak emon dabela eta emoten jarraituten dabela. Euskal hiztunen kopurua gorantza doa batetik bideratu diran neurriak esker eta erakunde eta eragile guztien artean egin dan lanari esker, eta batez be, herritarren inplikazioari esker. Nire eretxian, klabe nagusia, herritarren gogoia izan da, eta da. Nahiko lekie beste herrialde batzutan Euskadin dagoan hizkuntzeagazko loturea izatea! Egia da horregaz batera, herri aginteen aldetik euske-



Lorea Bilbao.

**Lorea Bilbao Ibarra Euskera eta Kultura Diputadua Bilbon jaio zan eta Oban (Dima) bizi da. Obakoa, Magisteritza ikasketak amaitu ondoren Euskal Filologian lehenengo eta Antropologian gero lizentziau zan. Bizkaiko Foru Aldundian, euskera, kirola eta kultura arloak ditu bere ardurapean. Aurretiaz, Eusko Jaurlaritzako euskera sustatzeko zuzendari eta kultura aholkulari be izan da. Baita, EABko (Euskararen Aholku Batzordea) kidea eta EAJren ejekutibako Euskara, Hezkuntza, Kultura eta Kirola alorreko burukide arduraduna be.**

**Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibersidade eskolako irakaslea da, momentu honetan eszedentzian.**

rearen sustapenerako neurri egokiak bultzatu dirala eta lege babesa be badaukagula baina herritarren borondate barik hori guztiori alferrekoa izango zan. Hori egon ez danean be, danok dakigu garai baten pasautakoak, herritarrak eutsi egin deusie. Euskerearen bilakaerearen prozesua eredugarri da hemendik kanpo, eta nazinoartean be ikertu eta ezetu gura dan kasua da.

**Zeintzuk dira euskera sustatzeko foru politiken ardatzak? Kargua hartu zenduan, ze behar eginda egoan? Eta zein izan da eta da, euskereari jakokonean, zure lanaren jardunik inportanteena edo eragin handiena daukana?**

Oraintxe argitaratu barri dago, seigarren Inkesta Soziolinguistikoa, eta hor argi agertzen da herritarrak ondo baloretan dabela, batez be Bizkaian, Jaurlaritzatik egin dan Hizkuntza Politikea eta uste dot arrakasta nagusienetarikoa bat izan dala, batez be azken legealdian, Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak

beste herri aginteakaz batera izandako koordinazioa eta alkarlana. Markautako bide horri eutsi gurako neuskio.

Neurri konkretuetara joanda eta Bizkaiko Foru Aldundiari jagokonez, gure legealdiko helburuak hiru dira. Lehenengoa, euskerearen ezagutza prozesua erreztea herritarri, behintzat karga ekonomikoa arinduz. Horretarako ipini dogu martxan Euskara Eskura Txartela. Beste helburu bat da gizarte eragileakaz batera euskerearen erabilera sustatzeko neurriak proposatutea: Aurten kirol arloan, lan munduan,

**Badago egitasmo bat oso polita eta bultzatu beharrekoa, eta harro egoteko modukoa: Harriti herri kirol taldea**

teknologia barrietan eta geure administrazioan bertan eragin gura dogu. Eta hirugarren helburua txantxangorriaren hedapenagaz jarraitzea litzateke eta herritar guztiak konbidau euskera erabilera edo euskerara hurbiltzera edo euskerazko produktuak konsumidutera edo euskera ikastera. Azken baten, danok gero eta gehiago euskeraz bizitera.

**Euskerearen aldetik konsenso soziala dago. Horrek esan gura dau Euskera Planak eta abar, gero eta errezago beteten dirala?**

Bai, inozko adostasunik zabalena dago, horren lekuko dira 2016ko Euskerearen Nazinoarteko Egunean, bai euskerearen adierazpenak izandako sinadura kopurua eta askotarikotasuna: Eusko Jaurlaritzak, hiru Foru Aldundiak, EUDEL, UEMA, Lanbide Heziketakoak, unibersidadeak, Topagunea, Laneki, Labayru, Kontseilua, osasun arlokoak, Diasporako eragileak, enpresak, kirol talde, federazio eta klubak, norba-

nakoak, alderdi politikoak, sindikatuak, epaileak, hedabideak... Gizarte arlo guztietako ordezkariak ikusi genduzan ekitaldi nagusian be.

Nor ez da ba egon hor? Ideologia, pentsakera, eginkizun diferentetakoak izanda be danok bat eginda agertu ginan. Holango giro bat sortu danean erronka handia da giro horri eustea eta hori sendotzea, edozein hizkuntza politikako neurri apliketan bada be errezago izango dalako holango giro baten hedatzea eta euskereak aurrera egitea, eta euskereak aurrera egiten dauan neurrian egingo dau aurrera herri honetako bizikidetzak be.

**Zelan ikusten dozu euskerearen aldetik Arratia, Ubide eta Zeberio? Herrien artean desbardintasunak egon arren, eremu euskalduna da. Zer ikusten dozu garrantzitsu euskerearen presentzia handitzeke? Herri hizkerea eta batua hartzean dauan euskera inklu-sibo bat sustatzeko nondik jo beharko litzateke?**

Gune hau beti izan da euskalduna, Bizkaian eta EAEn euskaldunenetarikoa, eta horri eustea jagoku. Garrantzitsua da bertako giro euskalduna sendotzea herrietako espazio publiko guztietan euskerea presente eginaz, bardin da taberna edo ambulatorioa, elizea zein gimnasioa edo dendea, gabizan lekuan gabizala euskerea geugaz eroanez. Eta horretan danok inplikau behar gara herrietara datozen biztanle barriak zein bisitariak be euskerara hurreratu daitezkan konbitea eginaz, eta erreztasunak emonaz.

Herri hizkerea beharrezkoa da eta herri hizkerea konpleju barik erabiltea be bai, bakotxak dakiana erabiltea beti izango da abantaila, ez erabiltea da arazo bakarra eta handiena, baina hori ezin da izan atxakia erregistro formalai uko egiteko. Euskereak aurrera egingo badau beste hizkuntza guztiak moduan jokatu behar dogu. Euskereak behar dauz hurbilekoa eta informala alde batetik, eta formala, jantzia, bestetik; eta ez dira kontrajari behar. Bakotxak bere lekua dauka eta biak doguz beharrezkoak.

Nik bizkaieraz egiten dot berba, baina Batzar Nagusietan atrilera urtetan dodanean edo Diman lagunak ezin dot bardin egin. Eta erabileran diferente horreexek dira gainera hizkuntzea, euskerea, aberastuten dabenak. Hizkuntza bat da euskerea. Gaztelereaz esate baterako, Madrilan eta Cadizen diferente egiten dabe berba, edo pentsetan dogu ba Madrilakoak Jerezekoai errez aituten deutseela? Eta zer esanik bez, Jere-



zeko batek idatzi eta berba ez dau bardin egiten, eta segun eta nogaz eta non dabilen berba be ez dau bardin egiten.

Euskerearen kasuan gainera normalizazio bidean gagozan moduan normatibizazioa bera be ez dago amaituta. Horregaitino da inportantea bai herrikoa baita estandarra be, biak baloretea, biak bultzatzea, biak erabiltea. Eta herri hizkeratik hartzean diran esamolde eta abarrekaz aberastu beharko da beste hizkuntzetan egiten dan moduan eredu formalena, baina eredu formalena dan hori be gero eta erabiliagoa bada orduan eta biziagoa izango da. Eta argi euki behar dogu danok, euskera txar bakarra egiten ez dana dala, argi euki behar dogun moduan, euskereak etorkizun oparoa izan daian belaunaldi gazteenak erreztasunez eta gogoz erabili behar dabela euskerea, konpleju barik eta gura daben ereduaren aldeko aukeraketea eginda.

Gazteen garrantzia azpimarratu gurako neuke. Belaunaldi barriari euskeraz eta euskerazko produktu erakargarriak transmitidu behar jakoz. Gazteengan euskerea erabilteko gogoia sustatu behar da. Izan be, euskereak aurrera egingo badau, belaunaldi gazteak euskerea erabiltea eta euskeraz edota euskeraz be bizitea erabagiten dabelako izango da.

**Kulturaren aldetik, gauzak korapilotsuagoak izango diralakoan nago. Teknologia barrien erabilera masiboak, liburutegi, museo eta abarrek kulturaren daukien lekua aldatu dau? Kulturaren beraren definizioa be aldatzen doa? Eraginik badauka Foru Aldundien kultura politiketan?**

Nire eretxian gizartearen aurrerapenen eta ohituren aurka joatea alperrekoa da. Teknologia dirala etorkizuna? Ba teknologia baliaitu beharko doguz bultzatu gura doguna bultzatzeko; teknologia barrien onurak aprobetxauz egin beharko dogu kultura sendotzeko apustua: ondarea babestu, ezagutarazo eta baloretako esate baterako; edota liburuak, gure idazleak eta egiten dabezan lanak herritarren eskura jartzeko; edota egiten diran arte lan guztiak nazinoartean be zabalduteko.

Digitalizazioak esaterako, gure ondarea babesteko sekulako aukerak emoten deuskuz. Ikusi baino ez dago adibide moduan, kobazuloak "bisitetako" aukerea eskeini deuskula eta bertako margolanak eta grabaduak herritar guztien eskura jartzeko. Hori barik gitxi batzuen esku egongo lizateke ondare hori. Horretan lanean jarraituko dogu. Gauza bera gertatzen da artiboetako eta liburutako ondareakaz esate baterako, zaindu egin behar dira, baina zaintze horrek ezin dau ekarri heritarrak horretaz ez goga-



tzea. Digitalizazioa eta teknologia barriak orokorrean lagungarri doguz ondarearen zabaltze horretan.

**Zeintzuk dira indarrean dagozan kultura politiken ardatzak, lan-ildoak edo proiektu edo programa interesgarrienak?**

Kultura jarduera gizarte baten bizi indar kolektiboaren neurria da. Mundua ulertzeko eta munduan kokatzeko modua, garana ulertzeko baliagarria dan balore eta idea partekatuen multzoa, belaunaldiz belaunaldi transmititzen dana eta denporan zehar eta beste kultura eta gizarte batzukaz daukaguzan harremanean, etenik barik egokitzen doana. Herri baten identitate kolektiboa garatzeko ezinbesteko osagaia da, babestu eta sendotu beharrekoa.

Gure gizarteak sortzean dauana da euskal kultura, kultur adierazpenai zein sorkuntzarako hizkuntzai jagokienez. Hori holan izanda be, zer esanik ez, euskeraz sortutako kultura bultzatzean ahalegin berezia jarriko dogula, merkadu zabalean hedatzerakoan daukazan zailtasunai eraginkortasunez aurre egiteko. Gure helburua, euskal kultura transmitidutea da, garatutea eta sustatutea euskal lurralde guztien arteko loturak indartuz, eta nazinoartean kulturen plazan be geureari lekua eginda. Eskeintza kultural zabala dogu eta horrerri eutsi behar deusagu.

Bost lerro estrategiko daukaguz. Gure ondare historiko eta kulturala zaindu eta baloratu; Bizkaiko gizartearen kultur sorkuntza, eta dinamismoa babestu eta sustatu, horretarako heritarrak kultura sortu, zabaltu eta normaltasunez jasotzera bultzatu; geure kultur adierazpenetan, sorkuntzan eta baloreetan oinarrituz kulturartekotasunari ateak zabaltu, kultura desbardinaren arteko zubiak eta alkartrukerako bideak eregiz. Kulturak izan daiken arlo ekonomiko eta gizarte balioa bultzatu, eta nazinoartean plaza erakargarri moduan kokatu behar dogu gure kultura, nazinoartean geure kultura ezagutarazoteko ekimenak bideratuz, gure sortzaileak

eta euren lanak kanpoan ezagunak izan daitezcan, eta bertora gertakari kulturalak erakarriz, inbersinoak erakarriz... Eta azkenik, erakusketa eta interakzio lekuen ezarpen eta kudeaketa efizientea sendotu, hau da, balioa emon eta errendimenterik onena atera daukaguzan kultura azpiegiturari, gure garapen kulturalaren elementuak diralako.

**Kulturaren aldetik zelan ikusten dozu Arratia? Ekipamentu zein ekimenen aldetik, zer falta da? Erakunde eta gizartearen arteko alkarlana ona dala esango zeunke? Kolaborazio horren adibide batzuk.**

Tokiko hedabideen zeregin nagusia sortu diran herrietako informazioa modu errezean eta erakargarrian zabaltzea da. Ulertzen dot mota guztietako informazioa dala zabaldu behar dana baina nik gurako neuke kultureak, euskereak eta bertoko kirolak aparteko lekua izatea.

Azken baten horreek dira gure nortasunagaz lotuen dagozanak eta horreek dira gure jokabideak eta egiteko moduak definitiduko dabezanak.

Ezinbestekoa da bai ekipamentu jagokienez baita egitasmoen inguruan alkarlana sendotzea, bai ekipamentuak baita egitasmoak koordinetea eta konpartidutea, eta danok "geure" sentidutea.

Badago egitasmo bat oso polita eta bultzatu beharrekoa, eta harro egoteko modukoa: Harriti herri kirol taldea. Hor dabiz euren egitasmoa sendotu guran, exhibizioak lortu guran, bota daiegun esku bat danon artean. Neska taldea da, herri kirolak egiten dabez, euskeraz egiten dabe... inportantea da Arratia eta inguruetan euri deitzea, bertan baloretea euren ahalegina eta bertotik Bizkaia eta gainontzeko herrialdeetara be saltua emon dagien.

Harriti aitatu dot, nire eretxian

proiektu berezia dalako, baina geure kirolak, bertokoak aitatu gurako neukez eta horreen barruan, zelan ez, herri kirolak. Geuk bultzatzen ez badoguz beste inork ez dauz bultzatuko. Onak gara gainera Bizkaiko inguru honetan herri kiroltan, pelotan, araanlariren bat be badogu... hortxe dogu eronketariko bat, ondo asmatu behar dogu behar daben babesa eta behar dabezan plazak, erakustaldietarako zein konpetiziotarako eskeintzen. Eta horreek bai dirala gure izakereaz, gure kultureaz, gure identidadeagaz lotura zuzena daukienak. Eta zorionez sekulako erreferenteak doguz bertan.

Eta Alex Txikonen lana gorai patu gura dot, eskertu eta zoriondu. Ondo egina! Horra hor beste erreferente bat, gaztea, euskalduna, eleanitza, ekintzailea eta bere lana ondo egiten dakiana. Arratiako nortasuna munduaren gailurrera eroan deusku.

erosketak  
**%20**  
merkeago

Igorre  
gure dendakaz

**Etorri Igorrera erosketak egitera!**

**25€KO BALIOA DU**  
**PREZIOA: 20€**

Otsailaren 20tik martxoaren 30era

ANTOLATZARLEAK  
LAGUNTZAILEAK

IGORREKO UDALA  
ame  
"la Caixa"



## MENDIA

## Mendiaren inguruko 2016ko pelikularik onenak Igorren

Bilbao Mendi Film Festivaleko (BMFF) pelikularik onenetakoak izango dira Igorreko Kultur Etxean saio bitan, zezeilaren 17an eta 24an; tartean, *Freedom under Load*, igazko sari nagusia.



<p><b>Otsailak 17</b> Ostirala 20:00</p> <p><b>E.B.C. 5300m</b> BMFF 2016 film labur onena Aitor carbonell BMFF 2016 Apiratza / Apirato 15' - Surt - es</p> <p><b>Boys in the Bugs</b> BMFF 2016 eskaladeko film onena Aitor carbonell BMFF 2016 Eskalada / Escalade 15' - VO - es, SUBT - es</p> <p><b>Jean Troillet, Toujours Aventurier</b> BMFF 2016 Naturaguzko saria Premia del públic BMFF 2016 Apiratza / Apirato 54' - VO - es, SUBT - es</p>	<p><b>Ostirak 24</b> Ostirala 20:00</p> <p><b>Annapurna III - Unclimbed</b> Apiratza / Apirato 12' - VO - oniz. SUBT - es</p> <p><b>Dodo's Delight</b> BMFF 2016 kirol eta abentura film onena Aitor carbonell BMFF 2016 Eskalada / Escalade 28' - VO - es, SUBT - es</p> <p><b>Freedom Under Load</b> BMFF 2016 Sari Nagusia Gran Premio BMFF 2016 Naturazko Kultura / Naturaleza y Cultura 56' - VO - uk, SUBT - es</p>
--	---

IGORRE KULTURETXEA - LASARTE ARETOA - ELEXALDE, 8  
SARRERAK DOAN - ENTRADA GRATUITA

## Erredakzioa

Saio bakoitzean, hiruna film ikusi ahal izango dira. Zezeilaren 17an, film laburrik onena, eskaladako film onena eta ikusle goazko saria jaso ebezan filmak, *E.B.C. 5300m* (15 minutuko iraupena), *Boys in the Bugs* (18 minutu) eta *Jean Troillet, toujours aventurier* (54 minutu), hurrengo hurrengo.

Hurrengo barikuan, barriz, *Freedom Under Load* sari nagusia, *Dodo's Delight* kirol eta abentura film onena eta *Annapurna III Unclimbed* film laburra.

Saio biak arrastiko 20:00etan izango dira Lasarte Aretoan.

## Beti abenturazale

*E.B.C. 5300m* ekoizpen suitzarra, Everesteko oinarriko kanpa-

lekuko bizitza erakusten dau. Kanpaleku hau urtero bi hilabeteetan montau eta desmontau egiten da eta bertan 1.000 lagun inguru bizi izaten dira. Leonard Kolhik zuzendutako film honek turismo mota hori kontroletako preminaz hausnarketa egiten dau.

Hurrengo filma, *Boys in the Bugs*, Zachary Barr, Peter Mortimer eta Nick Rosenek zuzendutako AEBetako filma da. Matt Segal eta Will Stanhope-n eskaladak ditu gaitzat. Segal eta Stanhope hamarkada batez, munduko arrakalarik gaxenak eskaletan dabilz. Bugaboo mendietako eskaladeak hareen bizitzak aldatuko ditu.

Ikusle goazko saria, Sebastien Devrient-ek zuzendutako 54 minutuko suitzar ekoizpena da. Filmak Jean Troillet-eren bizitzari errepaso egiten deutso. 68 urteko Troillet-ek 50 urte emon ditu alpinismoan eta 40 espedizioetan hartu dau parte eta 30 urte daroaz Himalaian eskaladak egiten.

## Zama eta askatasuna

*Freedom Under Load* (askatasuna zamapean) filmak jaso eban 2016ko BMFFeko sari nagusia eta Igorren ikusteko aukerea egongo da hilaren 24an. Pavol Barabasek zuzendutako film eslovakiarra, Tatra mendietako zamaketarien lanaren gaineko da. Filman kontetan dabe zergaitik aukeratu daben bizimodu hau, eta zergaitik jarraituten dabe Europako "azken mohikanoak" izaten.

Aurretik, iraupen laburreko eta iraupen ertaineko film bi proiektatu dira. Laburra, *Annapurna III Unclimbed*, 12 minutuko Jochen Schmoll-en Austriako ekoizpena da, eta David Lamak, Hansjörg Auer eta Alex Blümel-en 2016ko Himalaiara egindako espedizioa kontetan dau. Azkenik, *Dodo's Delight* 28 minutuko AEBeko filmak, Sean Villanueva, Nico Favresse, Olivier Favresse eta Ben Dittoren Groenlandia eta Baffin irlako espedizioa erakusten dau.

Bilbao Mendi Film Festivalek antolatuta eta Ganzabal Mendi Taldeak eta Igorreko Udalak babes ten ditue emonaldia.

sailkatu da. Zezeilaren 4an amaitu zan ligea eta orain finalerako lehian sartu dira pelotariak. Finala martiaren 3an izango da.

Txapelketan zehar igaz Kimetz Zapikogaz lortutako titulua de-

fendiduko dau Ziarrustak; hau da Bizkaiko Binakako txapela. Sasoi betean dago dimoztarra, aurten banakakoa be lortu dau eta aukerak badituala uste dau Txumulu-xuetakoak.



## TRINKETEA

## Finalaurdenetan da Lur Ziarrusta Bizkaiko Binakakoan

## Erredakzioa

Lur Ziarrusta dimoztarra, Bizkaiko Banakako Trinkete txapelketa, Jon Aranagaz batera Binakako Trinkete Txapelketako finalaurdenetarako

## MENDI LASTERKETEAK

## Gorbeia Suzien Ternua Europako Txapelketea

## Erredakzioa

Seigarren edizino hau baritasunez beteta dator Gorbeia Suzien Ternua mendi-lasterketea Europako Txapelketea izango da eta 2017an Sky modalidadean.

Ultra, sky eta bertikal modalidadeetan, lasterketa honek osotuko dabe Europako 2017ko Txapelketea:

Ultra: garagarilak 8, High Trail Valnoise, 68 km, Val d'Isère, Frantzia

Sky: urri bigarrenak 7, Gorbeia

Suzien Ternua SkyMarathon, Zea-nuri.

Bertikala: urri bigarrenak 13, Vertical Kilometer Grèste de la Mughéra, Limone sul Garda, Italia.

Horrezaz gainera, ISFren Skyrunner National Series Spain, Portugal & Andorra zirkuituko proba izaten segiduko dau Arratiako lasterketeak. 5 lasterketak osotuko dabe sky modalidadeko zirkuitua eta egutegiko azkena izango da Zeanurikoa.

Azken 5 urteetan bezala, nazionarteko eta Euskal Herriko mendi-lasterkari onenak biltzea espero dau Gorbeia Suzienek. Europako Txapelketea izango dala jakin eta berehala, besteak beste, Aritz Egea Temuako kide urretxuarrak jakinarazo dau aurten be Zeanurin izango dala: "Errekonozimendu internazionala. Barriz joan behar!" adierazo dau korrikalariak.

Yngvild Kaspersenek be, igaz Zegama-Aizkorri irabazi eban lasterkari norbegiarak, Gorbeian galapan egiteko asmoa adierazo deuta antolaketazari.



Luis Alberto Hernando.  
Argazkia: Unai Sorraín.

## FUTBOLA

## Momentu erabakigarria



Arratiak 1-3 galdu eban Athletic B taldearen kontra Urbietan.

## Ainhoa Duñabeitia

Arratia taldeko andrazkoak ez eben suberte onik izan hilaren 12an jokaturako atzen partiduan. Athleticen bigarren taldea izan eben aurrez aurrez. Arratiarrak gogor eutsi eutsien Athleticen partiduan osoan zehar, baina ezinezko egin jakien punturik ateratea. Partiduko 3 puntuak zurigorriak eskuratu ebezan, atzen emoitzea, Arratia 1 Athletic B 3. Hurrengo partiduan (zezeilak 18-19) Gasteizko Neskak taldea izango dabe aurkari etxetik kanpo jokaturako daben partiduan. Arratia atzenengo postuan dago (hamalagarren) 17 puntugaz.

Gizezkoen lehenengo taldeak osterako saileko lehen postuetan jarraitzen dau, 3. pos-

tuan hain zuzen be, azken bi norgehiagoketan bana egin osten. Hilaren hasieran Otxarkoaga izan eben aurkari gureak etxean, markagailuko atzen emoitzea banakoa. Hilaren 12an jokaturako partiduan be puntu bakarra lortu eben arratiarrak barriro be bana eginda. Hurrengo neurketan Indautxu izango dabe aurkari.

Gizezkoen bigarren taldeak atzen norgehiagoka biak irabazi ditu eta atzen astegienean jokaturako partiduan 3 gol egin ebezan Peña taldearen kontra. Etxean jokatuta eben neurketa, atzen emoitzea hiru eta hutsekoa izan zan. Hurrengo aurkaria saileko bigarren postuan dagoan Loyola Indautxu izango da. Arratia B seigarren dago sailekoan.



## AZKOREA

### Urrezko Binakako Aizkolari Txapelketaren finalerdian izango dira Atutxa eta Mugertza

#### Erredakzioa

Aitzol Atutxa aizkolari dimoztarra eta Ugaitz Mugertza mutrikutzarrak finalerdietarako sailkatu ziran urtailaren 21eko kanporaketa irabazi eta A taldeko buru jarri ostean. Finalerdian Juan Jose Azpilikueta eta Eneko Otaño, B taldeko hirugarrenakaz neurtuko dira zezeilaren 19an Oñatin (Gipuzkoa).

Finalerdirako txartela Zestean (Gipuzkoa) lortu eben Atutxa II.ak eta Mugertza II.ak, Xabier Orbegozo eta Joseba Otaegiri irabazita. Lan guztiak 16 minutu eta 46 segundotan egin ebezan,

bigarrenak baino 50 segundo gutxiago.



Aitzol Atutxa.

## MENDIA

### Alex Txikonek bertan behera itxi dau Everesteko tontorra zapaltzeko saiakerea

#### Erredakzioa

Eguraldi txarra dala eta, bertan behera itxi eben Alex Txikonek eta bere espedizionokideak Everestera neguan eta oxigeno barik igoteko saiakerea zezeilaren 14an. Bezperan, 7.950 m.tan kanpalekua ipini eta hurrengo egunean tontorra egiten saiatzeko asmoa eukan Alex Txikonek, baina hara heldutakoan, haizeak hain gogor jotzen eban ezin izan ebela kanpindendea montau. Izan be, -30 eta -35°Cko hozperoa egoan eta 60 eta 70 km/h haizea. Horregaitik, Txikon, Nerbu eta Cheppalek buelta emon behar izan eben eta hirugarren kanpalekura bajatu

ziran.

Hurrengo egunean, eguraldiak igotea ezinezkoa egiten ebal

ikusita, saiakerea bertan behera ixtea eta Euskal Herrira bueltetea ebatzi eban lemoztarrak.



Alex Txikon.

# begitu

arratia ubide zeberio

## ez da debalde



**"Albait gehienok apur bat emon daigun gitxi batzuk dana emon ez dagien".  
Izan zeu be Begitu-laguna!**



## ARATUSTEAK

# Aratuste jaiak, Kanporamartxo eta Etxeramartxo hileon

Mozorro lehiaketa ugari egongo dira gurean Aratusteetan. Aratusteak, eguen lodian hasi, zezeilaren 23an aurten, eta hilaren 28ra arte, Aratuste-martitzenera arte iraungo dabe neguko jairik inportanteenak.

**Erredakzioa**

Barikuan, eskola guztietako umeak desfileak egingo dabez eskolan egindako edo etxetik eroandako mozorroakaz, eta guraso alkarteak jaiak antolatu dabez desfileen ondoren zerbait jan eta ondo pasetako.

Astegoiena aprobetxauz, ahalik eta jente gehienak parte hartu dagian barikuan, hilak 24 eta zapatuan, 25, ospatuko ditue karnabalak, Bedian izan ezik. Bedian, tradizioari eutsiz, Aratuste-martitzenean egiten dabez desfile eta ospakizunak.

Aratusteakaz lotuta, Kanporamartxo eta Etxeramartxo be bizirik diraue Arratian. Kanporamartxo Aratusteen aurreko domekan egiten da. Lagunakaz basotik ibilalditxo baten ostean, zorrotutako makilen puntan txorizoa edo pemila sartu eta sutan erreten da, ogitartean jateko. Etxeramartxo barriz, etxean bertan edo etxe inguruan egiten dan ospakizuna da. Normalean Aratuste-martitzenaren aurreko domekan izaten da. Antxina, baserrietako

bizilagunak biltzean ziran, hildako txarriagaz egindako txarriak jateko. Izan be, ostean Garizumea hastean zan; hau da, okelea jan barik egoteko denporaldi luzea.

**Areatza**

Areatzako eskolako umeak, barikuan hilak 24, hainbat ekintza egingo ditue eskolan bertan, baita herrirainoko kalejirea. 16:30ean, gurasoak txokolatea bananduko dabe eskolan eta 17:30ean, ludotekan, tailerrak egongo dira. Ordu berean Aretoan Hodei Magoak *Ordu magikoa* ikuskizuna eskeiniko dau. 19:00etan, V. Frontenis Txapelketako finalak izango dira.

AKKB kirol eta kultura batzordeak be bere eguna ospatuko dau hilaren 25ean, eta bazkideak mendi ibilaldia, babajana mozorrotuta hotelean, batukadea eta Gaztetxean erromeria antolatu dabe.

Billaroztarrak Kanporamartxo egingo dabe zezeilaren 19an Guraso Elkarteak antolatuta Lamindaon. 10:00etan urtengo dabe plazatik

parte hartzaileak. Eguraldi txarra egiten badau plazan egingo dabe txixi-burruntzia.

**Artea**

Artean, zezeilaren 24an ospatuko ditue Aratusteak, batez be umeak. Eskola umeak eskolan mozorrotuko dira eta 15:00etan emonaldia egingo dabe bertan. Arrastian, 16:00etatik 19:00etara jaia ospatuko dabe Ludotekan. Bertan maskarak egin eta arpegia pintetako aukerea izango dabe. Zazpiretan, ipuin kontalaria egongo da ludotekan. Ordu berean, Arteako plazan Arratia Kantuz egongo da eta eurakaz batera kantetako aukerea izango dabe hurreratzen diran guztiak.

Bederatziretan, Igitie Arratiako Baserriar Agroekologikoak antolatuta, bertso-afaria egingo da Herriko Bantan, Arkaitz Estiballesek eta Etxahun Lekuek botako dabez bertsoak eta Igor Menikak jardungo dau gairjartzaile.

Domekan, hilak 26, Kanporamartxo egingo dabe arteaztarrak. Txixi-

burruntzia 13:00etan izango da Eleixabeiti auzoko San Migel eleizan.

**Bedia**

Esandako moduan Bedian, tradizioari eutsiz, herri mailako mozorro desfilea martitzenean izango da, hilak 28, arrastiko seiretan. Ordubete lehenago hasiko da jaia; izan be, izen emoteagaz batera, photocall-a eta karaokea egongo dira. Desfilearen ostean ikuskizuna egingo dabe partaideak eta txokolate beroa bananduko da hurreratzen diranen artean.

Desfilerako jantziak prestatzeko bezperan umeentzako mozorro eta makilaje tailerrak egongo dira ludotekan.

**Dima**

Dimako eskolako umeak, munduko herrialdeak eta andrak lotutako gaiaren inguruko mozorroak jantziko dabez barikuan. Hurrengo egunean,

hilak 25, guraso alkarteak jaia antolatu dau frontoi txikian. 18:15ean batu eta 18:30ean hasiko da umeen mozorro desfilea. Nagusien barriz, bertaratu ahala izango da. 19:00etan txokolatea eta ondoren disko festa Keimaren animazioagaz. 20:00etatik 22:00etara pintxo potea egongo da.

Baltzola jatetxean, Lion Heart rock taldeak kontzertua emongo dau 22:00etatik aurrera.

**Igorre**

Barikuan, umeak eskola barruko ospakizuna egingo dabe frontoian. Ziklo bakotzak antzeppen bat egingo dau. Aurten mozorroa libre da. Ondoren, jaia egongo da eskoletako aterpean 16:45etik aurrera. Ismael Pereiraren eskutik jantza saioa eta txokolatea egongo dira. 20:00etan, talo jana egongo da erdigunean.

Hurrengo egunean jaia goizeko





11:30ean hasiko da Igorren, Kultur Etxeko parkean egongo diran umeentzako jolasakaz. 12:30ean, poteo musikatua, AZ tabernan hasita. Herri bazkaria be egongo da, baba jana, 15:00etan. Arrastiko seiretan erromeria eskoletako aterpean Jokaldi taldeagaz. Erromeria bitartean Mozorro Lehiaketea jokatu da. Bazkarirako txartelak AZ tabernan erosi leitez. Igorreko Udalak, Zaztaparrak-ek, Inazio Zubizarreta Guraso Elkar-teak, errugbi taldeak eta Gure Esku Dagok antolatu dabez ekintzak.

Hurrengo egunean, hilak 26, 18:30ean, Exeramartxo egingo dabe Igorreko jubila duak, Jubila duen txokoa.

#### Lemoa

Eguen lodian, hilak 23, hasiko dira Lemoan Aratusteak ospatuten. Izan be, egun horretan 10:00etan, txitxiburruntzia egingo dabe eskolan, guraso eta ikasleak.

Barikuan, eskolako mozorro festa egingo dabe kiroldegian 11:30etik aurrera. Festaren gaia musika izango da.

Zapatuan, hilak 25, Inauteri jaia herrian izango da. Txikerrenentzat, 17:00etatik 20:00etara kiroldegian, puzgarriak, jokoak, photomatoi gu-nea, txokolata, musika eta jantza egiteko aukera egongo da beste ekintza askoren artean. Nagusien txandea zazpiretatik aurrera izango da; Jai Batzordeak antolatuta, poteo musikatua egongo da eta, Eingo Kantan eta Dantzan taldeagaz, 19:00etan Alkartetxetik abiatuta. Atzenik, Harriketarrak Gazte Asanbladeak antolatuta, Zirkinik bez taldeagaz erromeria egongo da Karabie Gaztetxean gaueko 23:00etatik aurrera.

#### Zeanuri

Zeanuriko eskoleak, guraso alkar-teak eta ludotekeak, zirkua gaitzat hartutako jaia antolatu dabe, zirkue-tako animalien egoera salatuteko eta animaliak libre izan behar dirala aldarrikatzeko. Barikuan, hilak 24, eskolatik frontoira joango dira "kale-zirkua" eginez. Umeak zirkua antzean dagozan lanbideak antze-tuko dabez: malabaristak, sarrerea kobretan dabezanak zein garbitaileak, berbarako. Gurasoak be hartuko dabe parte eta guraso alkar-teak txokolata, bizkotxoak eta frutea ipiniko dau. 16:30etik aurrera jaia guraso alkar-tearen eskutik izango da, eta 18:00etatik aurrera ludotekeak antolatutakoak.

Hurrengo egunerako, Tor Magoa-gaz, magiaz betetako poteoa antolatu dabe Zeanurin 19:00etan. Ondoren, 21:30etik aurrera, dj-a edo karaokea egongo da frontoiko tabernan.

Kanporamartxo be ospatuko dabe Zeanurin, hilaren 19an, Joko Alaik antolatuta. Ibilaldia, plazatik 10:00etan urten, eta Ortuzar, Azkarr eta San Justotik San Juanera izango da. Han egingo dabe txitxiburruntzia. Horretarako egurra eta edabea antolakuntzak ipiniko dau.

#### Zeberio

Zubialde Eskolako umeak be barikuan ospatuko dabe jaia. Gurasoentzako ipuin musikala antze-tuko dabe eskolako gimnasioan eta gero, guraso alkar-teak jaia antolatu dau.

Zeberion, Gaztelekuan izango da Inauteri Festa. Bezperan, festarako prestaketa lanak egingo ditue eta zapatuan, hilak 25, jaia. Arrastiko 17:00etatik aurrera, musika, ekin-tzak tailerrak eta gazteak antolatu-tako kopautxoak egongo da.

## IKUSKIZUNA

# Jentilak Diman 17 maiatzaren 20an izango da

Aurtengo ekitaldia Baltzolako kobetan eta inguruetan egingo dabe, orain dala urte bi egin zanari jarraituz.

Ikuskizuna baso-ibilaldian garatuko da eta ez da frontoiko ikuskizunik izango.



Jentilak Diman ikuskizunaren igazko argazkia.

#### Erredakzioa

Maiatzaren 20an, zapatu arrastiluntzez, egingo da baso ibilaldi mitologikoa. Ikusleak ibilaldian zehar laminak, sorginak, jentilak, kristinauak eta bestelako izaki mitologiko batzuk ikusiko dabez. Eta koba barruan izango dan antzerkitxoan jentilen eta kristinauen artean lurraren eta lurreko gauzen gainean eztabaida ikus-teko eta entzuteko aukera be egongo da. Eguna guztiz gautu orduko amaituko dan ibilaldian, herriko koruak eta jantzariak parte hartuko dabe.

#### Entseguak

Prestatze beharrak orain dala hila-bete batzuk hasi baziran be urtailaren azken egunetan ekin deusie entseguak egiteari. Ekitaldian zehar guztira 115 persona inguruk hartuko dabe parte, aktore, abeslari, jantzari eta antolatzaileen artean.

Orain, Udalagaz ibilaldirako bai-menak tramitetan, inguruak atontzen, soinuaren alderdi teknikoak eta aurrekontuak zehazten dihardue. Izan be, "mendian jente askorentzako ekintzak antolatzea oso konplejua da eta gatxago egiten dau berez erreza ez dan aktibidade bat antolatzea" antolatzaileen esanetan.

## AKKB EGUNA

# Batukadeak animauko dau Areatzan AKKB Eguna

#### Erredakzioa

Areatzako Kirol eta Kultura Batzordeko (AKKB) bazkideak ohitura bihurtzen dabilz alkar-tearen eguna ospatzea zezeileko atzen astegoinean. Aurten, Aratusteetan, hain zuzen be. Horregaitik, bazkaria mozorrotuta egingo dabe. Musika AKKBren batukada taldeak ipiniko dau.

Egun osoko jaia izango da, goizean mendi ibilaldiagaz hasi eta gaubean erromeriagaz amaituko dana.

#### Zezeilak 24, barikua

19:00etan, V. Frontenis Txapelketako finalak.

#### Zezeilak 25, zapatua

09:00etan, mendi ibilaldia Lamino Mendi Taldeagaz. PR BI 9 (Areatzako PR barritaua). Areatza-Pagomakurre-Areatza. 12 kilometro. 15:00etan, bazkaria Hotelean. Babajana. Mozorrotuta. 18:30ean, BatucAKKB. 20:00etan, erromeria Laminetxe Gaztetxean.



## DUNBA

# Etekin handiko zikloak Zulaibarren

#### Zulaibar Lanbide Ikastegia

ETHAZI gaur egunean Lanbide Heziketearen hezkuntza munduan danon ahotan dabilen berbea dala esan leikegu. Arratiako Zulaibar Lanbide Ikastegiko elektrizidateko erdi mailako zikloan, eta hurrengo urteetan beste zikloetara zabaltzeko helburuagaz, ezarrita dagoan metodologia da hau.

ETHAZI, Etekin Handiko Zikloak berben lehenengo bi letrak hartuta lorturiko berbea da. Ikasleen rola guztiz aldatzen dauan metodologia da, baita irakasleena be, klaseak emoteko eta prestatzeko orduan goitik behera aldatzen ditu eta.

Klase magistralak albo batera itxita, urteko ikasgai guztiak

lan kooperatiboan oinarritutako erronken bidez lantzea dauka helburu ETHAZIk. Ikasleak euren irakaskuntzearen protagonista dira eta lan mundurako guztiz beharrezkoak diran kompetentzia teknikoek gainera, enpresak asko baloretan eta eskatzen dabezan kompetentziak (parte hartzea, planifikazioa, erresponsabilidatea, sormena...) eskuratzen dabez.

Ikasteko espazioa be desbardina da. Ikasgelaren banaketea aldakorra da, egoerearen arabera era batera edo beste batera ordenatzen da. Lehenagoko ilarak desagertuta, mahaien banaketea taldekakoa da. Mahaien multzoak ikasleak egin beharreko lanaren araberekoak dira.

Ikasleak tailer eta ikasgelan

artean bueltaka ibiltzen dira, alde teorikoak ikasgelan landu eta praktikoak tailerretan aurrera eroanda. Holan, dinamismoa lortzean da, eta gela aldatzekaz ikasleak geldialdi txikiak daukiez, apur baten deskantsau ahal izateko eta egin beharrekoari indarrez eta gogoz ekiteko.

Geletan teoria lantzeak ez dau



esan gura orain arte beti egiten izan dan antzean, irakasleak "txapa" teorikoak emotea. Ikasleak euren kabuz, jarraitu beharreko aurkibide bat oinarri izanik, ordenadoreak erabilia informazioa bilatu eta taldekideen artean landu behar dabe. Azterketak ez dira guztiz desagertzen, baina ez dira orain arte moduan, gaintu edo ez gaintuzeko aukera bakarra. Holan, ikasleen presinoa gitxitzea lortzean da eta egunean-egunean eginiko lanak benetan izan beharko leukean indarra daukie.

Erronken bidez lan teorikoak eta praktikoak taldeka garatzeaz gain, lanen aurkezpenak be garrantzia dauka. Lanak azaldu eta jente aurrean berba egiteko kompetentziak lortzea bideragari bihurtzen dira era honetan.

Eta irakasleen lan egiteko modua be, aldatu egiten da. Metodologia barri honeguz, irakaslearen helburua, ikasleak kompetentzia guztiak garatzeko jarraitu beha-

reko bidea erakustea da.

ETHAZIn kooperatibidadeak garrantzi handia daukanez, jarraitu beharreko bidean ikasleak euren artean berba egin eta diskutiduten dabe. Dudak zuzenean irakasleari galdetu beharrean, euren artean landuta, arazoai aurre egiten ikasten dabe. Euren arteko laguntzea dauka helburu ETHAZIk. Hau be enpresa munduari begira, garrantzi handiko zeharkako kompetentzia dala esan daiteke.

Informazio gehiago behar izan ezker, [www.zulaibar.org](http://www.zulaibar.org) web orrialdean dago.





## AGENDEA

### ZEZEILAK 15 BEDIA

16:30etik 19:30era, 17ra arte, Udak eraturtako ikastaroen izen emotea liburutegian.

16:30etik 19:30era, hilaren 16ra arte, Madrilako Wamerrera biajerako izen emotea liburutegian.

### IGORRE

17:00etatik 19:00etara, zezeilaren 17ra arte, astelehen, eguzten eta bankuetan martiaren 11n sagardotegira urtekerarako izena emoteko epea zabalik Gazteria Zerbitzuko bulegoan (Kultur Etxea). 18 eta 30 urte bitartekoentzat. 30 euro.

Hilaren 28ra arte, argazki erakusketea, *Ganzabal Mendirik Mendi* Kultur Etxean.

18:00etan, Igorre Eskualdeko Egiturako Paisaiaren Katalogoa aurkeztea Kultur Etxean.

Jaietako Kartel Lehiaketa. Kartela entregetako epea martiaren 3ra arte zabalik. Kultur Etxean.

### ZEANURI

18:30ean, Gaure Eskuetan-ek antolatuta, batzar zabala udaltxe azpian, maiatzaren 7ko itauna landu eta ebazteko.

### ZEZEILAK 16 DIMA

18:00etan, Bizi Plaza dinamikearen diagnostikoa. Lan saio irekia Abaro lokalean.

### ZEZEILAK 17 AREATZA

19:00etan, jaietako batzarra liburutegian.

### ARRATIA

08:45eko autobusa (Zeanuri-Bilbo, Lemoan geratu) Gurutze Gorriak antolatuta, jubiladu eta pensinodunentzat mendi ibilaldia. Lemoa-Belabikieta-Lemoa. Izen emotea, Arratiako Gurutze Gorrian, Agirre Lehendakari kalea 27 Igorre edo 94 673 62 62 telefonon.

### BEDIA

18:15ean, domekara arte urtekerea Baqueira Beret-era eskizterara. Ganguren Mendi Taldeak antolatuta Udalaren laguntzeagaz.

### IGORRE

20:00etan, 2016ko Bilbao Mendi Film Festival-eko onena. *E.B.C. 5300m, Boys in the Bugs* eta *Jean Troillet toujours aventurier* filmak Lasarte Aretoan.

### ZEANURI

Zeanibef sukaldaritza ikastaroa Alzuako txokoan Udak antolatuta.

19:30ean, Aitor Esteban Kongresuko EAJ-PNMko bozeroalea *Arratiarakaz berbetan* beraldi zikloan.

### Kultur Etxean.

### ZEBERIO

Graffiti tailerra Gaztelekuan.

### ZEZEILAK 18 AREATZA

Lamino Mendi Taldeak eta Gorbeia Parke Naturak antolatuta, auzolana: herri arteko ibilbideen garbiketea eta prestaketea.

20:00etan, Bool Weavil-en kontzertua The Quiet Corner-en.

### IGORRE

Jubiladuak antolatutako mendi urtekerea. 09:00etan Zeanuriako autobusa hartu; Zulaibar-Urbe-San Lontxo-Otzerinmendi-Zeanuri (autobusa)-Igorre.

22:00etan, zinea *Comancheria* Lasarte Aretoan.

### LEMOA

10:00etan, Zugatz Eguna San Antolinen. Ganzabal Mendi Taldeak, JB Eguzkitza Meabe Ikastetxeak eta Lemoako Udak antolatuta, Elizondon.

### ZEBERIO

Brico-gazte tailerra Gaztelekuan.

### ZEZEILAK 19 AREATZA

10:00etan, plazan. Kanporamartxo Lamindaon. Guraso Elkartek antolatuta.

### DIMA

11:00etan, Igitie, baseritarren azokea.

### IGORRE

17:00etan, zinea *Orm elurretako erresuman*; 19:30ean, *Comancheria* Lasarte Aretoan.

## Artean alkartuko dira kantuzaleak hilaren 24an

Zezeilaren 24an, arrastiko 19:00etan Arteako plazan daukie hitzordua Arratiako kantuzaleak. Arratia Kantuz ekimenaren barruan, Arratia eta inguruko kantuzaleak hilean behin herri baten batu eta bertan kantu kalejireari ekiten deusie. Egitasmoaren helburuak kantetako ohiturea berreskuratzea, euskera bultzatzea eta ondo pasetea dira.

Hile honetan Artean izango dira eta hurrengoetan, Igorren martian, Zeanurin apirlean, Diman maiatzean eta Bedian bagilean.

### LEMOA

Ganzabalek antolatuta goizeko urtekerea Arratiatik.

### ZEANURI

10:30ean Sagarna Txokoan. Kanporamartxo Joko Alaik antolatuta (Plazea-Ortuzar-Azkarra-San Justo-San Juan). 14:00etan txibi-buruntzia San Juanen.

### ZEBERIO

Austari Mendi Taldeak antolatuta mendi urtekerea Murumendi-Usturbe.

### ZEZEILAK 20 BEDIA

19:00etan, Jaietako Batzordearen lehenengo batzarra. Udaletxean.

### IGORRE

10:30-12:30 andra migraduen topagunea. Miriam Herbon irakasleagaz Kultur Etxean.

### ZEZEILAK 22 IGORRE

17:00etan, testamentuaren gaineko berbaldia. Inmaculada Ansotegiren eskutik. Jubiladuen txokoan.

### ZEZEILAK 23 DIMA

18:00etan, Bizi Plaza dinamikako lan saio irekia. Proposamenak. Abaro lokalean.

### IGORRE

16:30ean, edadekoakaz herri lagunkoien diagnostikorako lehenengo lan saioa.

19:00etan Jai Batzordeko batzarra Kultur Etxean.

### LEMOA

10:00etan, txibi-buruntzia eskolan.

### ZEZEILAK 24 AREATZA

16:30ean, txokolatea eskoletan; 17:30ean tailerrak

ludotekan (HH2-LH1) eta Aretoan ordu berean Hodei Magoaren *Ordu magikoa* ikuskizuna (LH2-LH6). 19:00etan, V. Frontenis Txapelketako Finalak.

### ARTEA

16:00etatik 19:00etara, Inauteri jai Ludotekan. 19:00etan, ipuin kontalaria Ludotekan.

### IGORRE

Aratuste jai. 16:45ean, jantza saioa Ismael Pereiraren eskutik eskoletako aterpean. Bitartean txokolatea; 20:00etan talo jana erdigunean.

17:00etatik 20:00etara, Umorea eta andrazkoak ikastaroa (gaztelaniaz) Virginia Imazegaz. Kultur Etxean.

20:00etan, 2016ko Bilbao Mendi Film Festival-eko onena. *Annapurna III Undimbed; Dodo's Delight* eta *Freedom Under Load* filmak Lasarte Aretoan.

19:30ean, euskal preso, deportadu eta igeslarien aldeko konzentrazioa.

### LEMOA

11:30ean, eskolako mozorro festa. Gaia: muskea. Kiroldegian.

19:30ean, euskal preso, deportadu eta igeslarien aldeko konzentrazioa. Bagabiz Badatzo ekimenak antolatuta.

### ZEBERIO

Inauteri festarako prestaketa lanak Gaztelekuan. 20:00etan, euskal preso, deportadu eta igeslarien aldeko konzentrazioa Zubialde plazan.

### ZEZEILAK 25 AREATZA

AKKB-Lamino Eguna. 09:00etan, PR BI-9 eta Birgun buzoi barria ipintea. 15:00etan, bazkaria hotelean mozorrotuta, babajana; 18:30ean, BatucAKKB; 20:00etan, erromeria Laminetxe Gaztelekuan.

20:00etan, The Romanticos taldearen kontzertua The Quiet Corner-en.

### ARTEA

21:00etan, bertso-afaria Herriko Benta. Bertsolariak: Arkaitz Estiballes eta Ebahun Lekue. Gai jartzaile: Igor Menika. Izen emotea Igorreko Axular Herriko Tabeman eta Arteako Herriko Benta. Igitiek antolatuta. Mozorrotuta joan.

### DIMA

Aratuste jai fronti bikian. 18:15ean batu; 18:30ean, umeen desfilea; 19:00etan txokolatea eta disko-festa Keima animazinoagaz. 20:00etatik 22:00etara pintxo poteoa.

22:00etan, Lion Heart taldearen kontzertua Baltzola jatetxean.

### IGORRE

10:00etatik 13:00etara, Umorea eta andrazkoak ikastaroa Virginia Imazegaz. Kultur Etxean.

Aratuste jai. 11:30ean, umeen jolasak Kultur Etxeko parkean; 12:30ean, poteo musikatua AZn hasita; 15:00etan babajana eskoletako aterpean; 18:00etan, erromeria Jokaldi taldeagaz eta mozorro lehiaketea eskoletako aterpean.

22:00etan, zinea *Tony Erdmann* Lasarte Aretoan.

### LEMOA

17:00etan, haurrentzako aratuste jai kiroldegian. Puzgarriak, jokoak, photomatoi gunea, txokolatea, muskea, jantzea... 19:00etan, poteo musikatua Eingo kantan eta dantzaren taldeagaz eta pikoteoa. Alkartetik hasita. 23:00etan, erromeria Zirkinik bez taldeagaz Karbie Gaztelekuan.

### ZEANURI

19:00etan, magiapoteoa Tor Magoagaz eta ostean 21:30ean, dj/karaokea frontoiko tabeman.

### ZEBERIO

17:00etan, Inauteri Festa: muskea, ekintzak, tailerrak eta gazteak antolatutako kopautxoak.

### ZEZEILAK 26 ARTEA

13:00etan, Kanporamartxo San Migel eleizan.

### IGORRE

17:00etan, zinea *Blinky Bill, el koalaa*; 19:30ean, *Tony Erdmann* Lasarte Aretoan.

18:30ean, Eberamartxo. Txibi-buruntzia jubiladuen txokoan.

### ZEBERIO

20:00etan, zinea *Un dia perfecto*. Eskola Zaharrear.

### ZEZEILAK 27 BEDIA

17:00etan, umeentzako mozorro eta makilaje tailerrak ludotekan.

### ZEZEILAK 28 BEDIA

Inauterian. 17:00etatik 18:00etara, mozorro desfilerako izen emotea, photocall-a eta karaokea; 18:00etan, mozorro desfilea herri mailan; 18:30ean, ikuskizuna; 19:30ean, txokolatea.

### MARTIAK 1 IGORRE

19:00etan, Arratiako Ongi Etorri Errefuxiatuak-ek batzar irekia Kultur Etxean.

## IRAGARKI LABURRAK

### SALDU

#### ALOKATZEN DA

100 m<sup>2</sup> dituan lonjea alokatzen da Igorreko erdigunean. Bulego, txoko... edozertarako sano aproposa. Baldintza oso erakarriarik. Deitu 653 745 838 telefonora.

#### SALGAI

Gimnasioko materiala salgai. Bankadea, barra, mankuernak eta pesak. Arratian bizi bazara 50 euro garraioa barne. Telefonoa 657 707 725.

#### LED TELEBISTA SALGAI

46 pulgadako Samsung markakoa. 1920x1080 erresoluzinoduna. Deitu 649 979 115 telefonora.

### DANERIK LAN BILA

Etxeak, bulegoak, portalak... eta abar garbitzen dodaz. Kotxeduna. Interesatuak 635 207 386 telefonora deitu.

#### LANGILE BILA

Arantzazurako persona euskaldun baten bila gabiz astebarruan, goizetan, 10 hilabeteko umea haurreskolara eroateko

eta astean birritan etxeko garbiketea egiteko. Telf.: 630 439 315.

#### ALOKATZEN DA

Jardunean dagoan estetika zentroa alokatzen da Galdakaoko erdigunean. Hartu-emonetarako deitu 94 456 64 57 telefonora.

#### TIRALARI BILA

Harriti andra proba taldea, taldean parte hartzeako Arratiako andra bila dabil. Eider 639 293 539.

#### LAN BILA

Bediako neska euskalduna persona helduak edo laguntza behar dabenak jagoteko prest agertzen da. Furgonetaduna. Telefonoa 688 647 074.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [beginu@topagunea.com-era](mailto:beginu@topagunea.com-era). Mezuak doban dira.**

# Begitu-lagunen txokoa

## Zenbaki honetako saridunak:

**1** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Comancheria* filmarako.

Lander Sagarna (Areatza)  
Odei Bustinza (Artea)



**2** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Toni Erdmann* filmarako.

Idurre Garcia (Zeanuri)  
Naiara Maguregi (Lemoa)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.


BEGITUK 14

urte eta ehundaka lagun.



## DENPORA-PASA

IMAN OLATU




### EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Osasuntsu. Musika nota. 2.- Sasoi, giro. Greziako mitologian, Arkadiako artzainen jainkoa. 3.- Suagaz batera. Mailu handi. 4.- Bokala. Aitamen. 5.- Edur-euria. 6.- Haragitarako gizentzen dan idi. Bostehun erromatar. 7.- Gaitasun. Begiak ibita. 8.- Galdetzailea. Irristatuz garraiatzen dan enbor. 9.- Emea ez dana. Karta-joko baten izena.

### GOITIK BEHERA

1.- Boltsiko. Barazki mota bat. 2.- Eskubara, nekazariaren lanabes. Gogo, desio. 3.- Andrai dei egiteko hotsa. Jauzi, txilipurdi. 4.- Oxigenoa. Gorputzaren organo bat. Letra bat. 5.- Orri. Lutezioa. 6.- Motz. Bibliako pertsonajea, Abrahamen iloba. 7.- Birritan, umeen berbetan, ibili. Kemen.



Topau uretan egiten diran zazpi kirolaren izenak.

S	A	L	T	X	O	K	A	L	O
A	A	S	T	O	K	E	L	A	F
N	R	O	I	K	A	L	I	R	I
P	R	A	F	I	L	A	U	G	R
O	A	R	O	P	E	S	E	R	A
L	U	G	A	T	D	R	Z	I	O
S	N	O	R	N	I	B	A	E	M
I	K	R	I	K	O	J	E	R	S
M	E	W	E	S	O	L	A	Z	I
O	T	T	X	A	R	E	N	P	U
S	A	G	U	B	E	L	A	R	G
Z	I	K	O	L	E	B	U	P	A
W	A	T	E	R	P	O	L	O	R
D	A	D	K	O	L	E	G	H	I
O	L	A	S	E	G	B	I	K	P

# AKI MI KO

Kaילו



**sew**  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tfnua. 94 631 92 96 • sewmoda@hotmail.com

**AKESOLO, S.A.**  
GARRAIKAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK  
Garbe, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

**AKEITEGIA**  
**GAY & LORA**  
**IGORRE**

**Igorren ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

**Recreativos Gubi S.L.**  
Angel Larrea  
Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
KOSANA eta ROBER  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
TLF. 94 631 92 00

**GARANTXE Autoeskola**  
TEORIA EUSKARAZ  
ZEIB ERDARAZ  
Lehendakari Agirre 31  
Tfnua: 94 673 71 32  
48140 IGORRE (Bizkaia)  
garantxe@vodafone.net

**ZUZENBIDE**  
ASEGURUAK: AUTOAK, ETXEBIZITZAK, DENDAK, ISTRIPUAK, BIZITZA...  
ABOKATUAK: ZUZ. ZIBILA, KONTSUMO ZUZ., ADMINISTRAZIO ZUZ., INGURUGIRO ZUZ.  
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA, ZERGAK, KONTABILITATEA  
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96  
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

**BIXER TABERNA**  
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

**Jose Luis Corbacho**  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3. 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
94-673-70-87  
609-79-40-54

**Orre**  
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA  
L. Agirre, 2.  
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnua: 94 673 64 25

**Pinturas Aratia**  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**ARRATIA AUTOESKOLA**  
karneta euskaraz zein erdaraz  
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)  
Telefona 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83  
e-posta: vnozku@euskatel.net



## OIER MENA PAGAZAURTUNDUA

## Gorbeiaiko kurutzea mendi tontorretik maketara

Oier Mena igorreztarak Delineazino eta Metal ikasketak egin ebazan Zulaibarren eta Ormazabalen egiten dau behar diseinu programakaz. Orain dala bost urte, Gorbeiaiko kurutzeak egiten hasi zan, hiru modelo desbardineta enkarguak. Kurutzea beti sinbolo gisa ikusita diseineta ebatzi eban. Jenteak emon eutsan harrera ona ikusita egun hobby-a baino zerbaite gehiago bilakatu da.

Rakel Aldekoa Diez

## Zelan eta zergaitik hasi zinan Gorbeiaiko kurutze txikiak egiten?

Nire denpora librean etxean gustuko gauzak marraztuten nebazan. Neure burua trebatuteko gustuko nituan diseinuak, asko ekoiztu barik. Etxean beti egin izan dot gauza piloak, marrazkiak... diseinua beti gustau izan jatalako. Arratiako jente askoren moduan, askotan joaten naz Gorbeia eta behin kurutzeari begira geratu nintzan eta neure buruari esan neutsan hori egitea ezin zala gata izan. Holan diseinu bat lortu neban polita eta gustukoa.

## Noz hasi zinan kurutzeak saltzean?

Lehenengo niretzako egin neban, beste bat familia arteko bateri oparitu neutsan eta bestea lagun min bateri. Jenteari gustau jakon eta ahoz ahokoak ondino funtzionetan dauala emoten dau, ze jentea deitzean eta eskatuten hasi jatan. Sorpresa handia

izan zan niretzako ze ez neukan preziorik ipinita, hobby bat zan. Eta hortik aurrera, kurutzearen fabrikazioak gastua eukanez, prezio bila hasi nintzan.

## Zer dala eta Gorbeiaiko kurutzea?

Guretzako beti izan da eta da sinbolo bat Arratia mailan. Urtean pilo bat bider igoten gara eta beti izan da atezinorea deitu deustana eta erronka moduan ikusi neban. Errez egin ahalko nebala pentsau neban, eta horregaitik Gorbeiaiko kurutzea.

## Zelan saltzean dozu?

Feria batzuetara joan izan naz, baina ez dot nire burua feriatan ikusten, feriatan egoten dan jenteak ofizio hori daukalako da eta nire kasuan afizinoa dalako. Jenteak, egiten nebazan gauzen argazkiak bidaltzeko eskatzen eustan eta webgune bat egin neban jenteak ikusi ahal izateko zer egiten dodan. Arratiaz gainera, Murgia eta Gasteiz ingurutik be izan dodaz deiak.

## Zenbat modelo eta ze mate-

## rialegaz egiten dozuz kurutzeak?

Hiru modelo daukadaz. Bata da 250mmkoa, bestea metro erdikoa eta bestea metro bat baino apurtxo bat gehiagokoa. Dana txapan egiten dot, txapea lase-rean ebagi eta gero forma nik emoten deusat eskuz.

## Inguruetako lehiaketetako garaikurrak be egiten dozuz. Ze lehiaketetarako egin dozuz? Zelangoak izan dira garaikur horreek?

Gorbeiaiko maketeak beste dimensio bat hartu eban Gorbeia Suzien lasterketarako garaikurrak diseinatu nebazanean. Lehenengo aldia zan aurkezten nebana garaikur moduan maketa personalizaua. Garrantzi handiena Gorbeia Suzien lasterketeari emoten deusat horrek atea zabaltu eustazalako.

Harrezkerotik, beste alkarte batzuk be hartu-emona euki dot. Oroigarri eta garaikur modura hareen ideak kontuan hartuz, eskaereta egokituten saiatu naz. Esaterako, Ganzabaleko lasterketarako, Sorgiñen lasterketarako... Orain Kolaziño Mendi Lasterketarako eskatu deuste, Lemoako Bizkaiko Koralen Egunerako be egin nebazan...

## Enkargua egiten deustue-nean baldintza asko ipinten deustuez? Ala libre ixten zaitue gura dozuna egiteko?

"Garrantzi handiena

Gorbeia Suzien

lasterketeari emoten

deusat horrek atea

zabaltu eustazalako"



Libre ixten nabe baina beti noa apur bat enfokauta jenteak gura dauanera. Diseinua ez da aldatzen baina oinarria aldatu daiteke. Esate baterako, ahal deuste eskatu eguzki lore bat ipintea behean, Athletic-eko eskudoa, eta abar.

Askotan hunkigarria izaten da Gorbeiak eta Gorbeiaiko kurutzeak daukan esangurea ezetutea. Jenteak bere esperientziak kontetan deustaz; hau da, kurutzeak eurentzat daukan loturea, esangurea... euren esperientziak, oroitzapenak, sentimentuak... hau da, kurutzea sinbolo bat da. Urtero zenbat saltzean dozu?

Ez daroat horren kontua hain zehatz. 2016an adibidez, inguruko

alkarte batzuk deitu eusten.

## Gorbeiaiko kurutze bakoak zenbat denpora daroats egiten?

Diseinua eginda dagoanez, kurutze batek lau ordu ahal deustaz eroan eta beste ordu bete pintetan emoten dot. Gero, jenteak oinarria aldatu gura badau, diseinu barria egiten zortzi bat ordu egin neikez.

## Pentsau dozu inoz beharra ixtea eta horretara dediketea?

Beharra itxi... ez. Nik momentuz egiten dodana gustura egiten dot, ez dot inoz helburu zehatzetan pentsau. Hasikeran esan dodan moduan nire denpora librean bururatzen jatazan gauzak egiten segiduko dot.

# ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

**Bolunburu Poligonoa, 19**  
**Amorebieta - Lemoa errep.**  
**48330 LEMOA (Bizkaia)**

**Tel. 946 31 44 06**  
**Fax. 946 31 20 26**  
**alkizabal@alkizabal.net**

**www.alkizabal.net**

**ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK**

**ERAIKUNTZA, LOREZAITZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKUA ETA SALMENTA**